

Hasierako onarpena:

Osoko bilkura: 2008-10-30

GAO: 2008-11-13

Behin betiko onarpena:

GAO: 2009-02-10

HERNANIKO UDALERRIAN
URAREN KUDEAKETA ARAUTZEKO
UDAL ARAUDIA

HERNANIKO UDALERRIAN URAREN KUDEAKETA ARAUTZEKO UDAL ARAUDIA

I. ATALBURUA: ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Xedea.

Araudi honen xedea da, Hernaniko Udalaren eta abonatuak diren pertsonen arteko harremanak arautzea. Bi alderdi horien eskubideak eta oinarritzko bete beharrak zehazten dira.

Zergei eta ordainarazpenei dagokienez, Udalean indarrean dagoen ordenantza fiskalak arautuko ditu zerbitzuak, baita ordenantza honetan bertan xedatzen denak ere.

Udala toki erakunde bat da eta bere helburuen artean, bere udalerraren barruan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak eskaintzea jasotzen da, une bakoitzean indarrean dagoen Estatuko eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko legedian jasotzen diren xedapenen arabera.

Udalak aurreko paragrafoan aipatzen diren zerbitzuak erregimen zuzenean kudeatzen ditu.

Araudi hau Udalak bere eskumenen esparruan eskaintzen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzu guztiei aplikatuko zaie.

2. artikulua. Arau Orokorrak.

Edateko uraren etxeko hornidura zerbitzua honako arau hauek xedatzen dutenari egokituko zaio: araudi honek xedatutakoari, 2006ko martxoaren 17ko 314/2006 Errege Dekretuan xedatutakoari, haren ondoko aldaketa eta zuzenketetan xedatutakoari, Eraikuntzaren Kode Teknikoari baitagokio (aurrerantzean CTE) eta Udalak onarturik daukan Araudi edota Ordenantzek diotenari, aurrekoekin kontraesanean ez badatoz

3. artikulua. Eskuduntzak.

Ur horniduraren emakida, bere modalitate desberdinetan, eta isurketen hustuketa eta trataera Hernaniko Udalarik bakarrik dagokio eta Hernaniko Udala bera izango da gainontzeko lanak bere kargura kontratatuko dituen dagokion Hornidura Kontratuaren bidez eta, halaber, zerbitzua burutzeko baldintzak arautuko ditu.

4. artikulua. Abonatua.

Araudi honen ondorioetarako, abonatua izango da finka, lokal edo industriaren erabilera eskubidea izanik, ur edangarriaren hornidura kontratatuta daukan titularra edo bere ordezkaria.

5. artikulua. Erakunde hornitzailea.

Araudi honen ondorioetarako Erakunde Hornitzailea Udala izango da.

6. artikulua. Estaldura ingurua.

Araudi hau Udalak udalerrri barruan eskaintzen dituen hornidura eta saneamendu zerbitzu guztiei aplikatuko zaie.

Oro har, Udalarenak ez diren barrutietara ez da ur emaririk hornituko, ez barruti horietatik isurketarik hustuko ez araztuko.

Alabaina, aparteko izaeraz eta kasu bakoitzean gertatzen diren inguruabarrak kontuan izanik, Udalak ur emariak hornitu ahal izango ditu, edota ur-isurketak atera eta araztu bere eskuduntzakoak ez diren barrutietatik, baldin eta eginkizun horiek ez badiote eragozten berari dagozkion udal zerbitzuei behar bezala kasu egitea.

Zerbitzuak udal barrutitik kanpo ematen direnean, prekarioan emandakotzat joko dira. Udalak, beraz, uste badu zerbitzu horiek mantentzeak udal zerbitzua kaltetu edo gutxitu egingo duela, horniketa eteteko aukera izango du. Holakoetan, erabiltzaileak ez du inolako eskubiderik izango erabaki horren kontra jotzeko.

7. artikulua.- Derrigorrez ordaindu beharra.

Urik ezingo da inoiz eta inolaz ere hornitu, ez eta hondakin-urak atera eta arazteko zerbitzurik eman doako izaeraz.

Udalak bere esku gordeko du bide publikoan dauden edateko uraren iturriak erabiltzeko eskubidea, uraren erabilera hori premiazkotzat jotzen denean, hala nola udalak kontratatzen dituen enpresen makina eta zerbitzuetarako denean.

Udalak, halaber, herritarrei zerbitzu onuragarri bat emateko beharrezkotzat jotzen badu, berari egoki iruditzen zaizkion edateko uraren iturri guztiak jarri ahal izango ditu bide publikoan.

II. ATALBURUA: HERNANIKO UDALAREN ETA PERTSONA ABONATUEN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

8. artikulua. Hernaniko Udalaren betebeharrak.

Udalarentzako betebeharrak bereziak erakar ditzaketen eta Araudi honetan arauketa bereziko gai izan daitezkeen egoeretatik aparte, Hernaniko Udalak honako betebeharrak hauek izango ditu:

Izaera orokorrekoak: Udalak eskura dituen baliabideekin eta bere eskuduntza eremuaren barne, edateko ura abonatuaren hartu-lekura eramateko betebeharra dauka, beti ere, Araudi honetan eta aplikagarri diren gainontzeko xedapenetan finkatzen diren baldintzen arabera.

Ura hornitzeko betebeharra: 6. artikuluan definitzen den estaldura inguruaren barne, Udalak eskatzen duen oro uraz hornitzeko betebeharra dauka eta uraren hornidura zabaltzekoa eskatzen duen amaierako pertsona abonatu orori; beti ere Araudi honetan eta indarrean dauden erregelamendu-arauetan jasotzen diren baldintza tekniko eta ekonomikoen arabera.

Aurreko pasartean aipatzen diren zerbitzuak emateko betebeharra, azpiegitura eta instalazioak gauzatzeko eta garatzeko Udalak erabaki ditzakeen inbertsio planetan finkatzen diren epeen baldintzapean egongo da.

- Uraren edangarritasuna: Udalak obligazioa dauka, indarrean dauden osasun xedapenen arabera, ura edangarria izango dela bermatzeko eraikinaren ur hartuarenean hasierako giltzaraino, salbu eta hornidura beste entitate lokal bati egitea.

pasabide-giltzara bitarte, eraikinaren barneko instalazioa hasten den puntura bitarte,.

- Instalazioen artapena: Udalak hornidurarako eta saneamendurako behar diren sare eta instalazioak eta ur hartuarenean giltza eta hartune-lepoa bere kargura zaintzeko eta artatzeko betebeharra dauka.

- Zerbitzuaren erregulartasuna: Udalak uraren horniduraren erregulartasunari eusteko betebeharra dauka.

Nolanahi ere, Araudi honetan jasotzen diren balizkoetan ezingo zaizkio zerbitzuen etenaldiak egotzi.

- Presazko deiak: Udalak deiak jasotzeko zerbitzu iraunkor bat izan beharko du, pertsona abonatuak eguneko edozein garaitan matxuren berri eman edo larrialdietan informazioa jaso ahal izan dezaten. Zerbitzu hau Udaltzaingoan egongo da zentralizatua.

- Erreklamazioak: Udalak idatziz egiten diren erreklamazioei hogeita hamar egunetako epearen barne erantzuteko betebeharra dauka.

- Tarifak: Udalak finkatuta dauzkan hornidura mota bakoitzari dagokion ordenantza fiskalak, une bakoitzean, onartuta dituen tarifak aplikatzeko betebeharra dauka.

9. artikulua. Hernaniko Udalaren eskubideak.

Egoera berezien ondorioz Udalari egotz lekizkiokeen beste eskubideez gain, honako eskubide hauek izango ditu izaera orokorrez:

Barneko instalazioak ikuskatzeko: indarrean dagoen legediak Administrazioako Organo desberdinei ematen dizkien eskuduntzen kalterik gabe, Udalak Araudi honetan finkatzen diren mugen barne eta edozein arrazoi tarteko zerbitzuan egon edo erabiltzen diren hornidurarekin lotutako instalazioak ikuskatzeko, berrikusteko eta kontrolatzeko eskubidea dauka.

Faktura bidezko kobrantza: Udalak abonatuako pertsonari egiten dizkion fakturak edo karguak kobratzeko eskubidea dauka.

10. artikulua. Abonatuako pertsonaren betebeharrak.

Araudi honetan eta abonatuako pertsona batentzat betebeharrak bereziak sortaraziz, arauketa bereziko gaiak izan daitezkeen egoera haietatik aparte, honako betebeharrak hauek izango ditu izaera orokorrez:

1) Ordainagiriaren eta fakturen ordainketa: jasotzen duen zerbitzuaren ordainetan, abonatuako pertsona orok, Udalak une bakoitzean onartuta dauzkan prezioen arabera egiten dizkion karguak ordaintzeko betebeharrak izango du, bai eta zerbitzu berezietatik eratorririk, dagokion ordenantza fiskalean finkatzen dituen prezioak ordaintzeko ere.

Uraren kontsumoari dagokionean, ordaintzeko betebeharrak hori zabaldu egiten da, kontsumoaren arrazoiak itogina, matxura edo barneko instalazioen eraikuntzan edo artapenean izan daitezkeen edozein akatsen ondorio bada ere.

2) Fidantzen ordainketa: ureztaketa-hartuneen bidezko aldi baterako hornidurak edo eraikinak eraikitze edo obra eta zundaketak egiteko hornidurak eskatzen dituzten pertsona guztiek dagokion fidantza jartzeko betebeharrak daukate, Araudi honetan xedatuak diren arabera.

3) Instalazioen artapena: CTEn gai honen inguruan xedatzen denaren kalterik gabe, abonatuako pertsona orok bere zerbitzurako instalazioak modu zuzenean erabili behar ditu eta, hala, instalazioak modurik onenean zaintzeko beharrezko neurriak hartuko ditu, ur kutsagarriak sarera itzul ez daitezkeen zainduko du eta, horretaz gain, kontagailua eta hartuneko instalazioak ez direla maneiatu bermatzeko dauden zigiluak berean mantendu eta irakurketa errazteko baldintzarik onenak jarriko ditu. Hartuneen zaintza eta artapena pertsona abonatuaren erantzukizuna izango da, ura hartzeko giltzatik aurrera.

4) Instalazioen ikuskaritzarako erraztasunak ematea: hornidura eskatzen duen pertsona orok behar diren elementu guztiak bere jabetzan jartzeko erraztasunak Udalari emateko obligazioa dauka, bai eta, hornidurarekin lotutako egiaztapen guztiak egin ditzan. Erakunde horrek baimendutako eta egiaztatzen duen pertsonalari sarbidea emateko ere.

5) Era berean, eta kasu bakoitzean egokienak diren neurketa ekipoak eta gainontzeko elementu osagarriak jartzeko behar diren lokalak, esparruak edo kutxetak erabiltzeko eskubidea Udalari lagatzeko obligazioa dauka.

6) Hirugarrenenganako desbideraketak: abonaturako pertsonak ezingo diote, inola ere ez, urik beste hirugarren pertsonari lagatu, doan zein kopuru baten ordainetan, ez denbora jakin baterako ez izaera iraunkorrez, ez bada Udalak baimentzen duen kasuetan. Eta bai berak eta bai bere menpeko norbaitek horniduran egin dezakeen edonolako iruzurraren erantzule izango da abonaturako pertsona hori.

7) Matxuren berri ematea: abonaturako pertsonak, denen eta beren mesederako, banaketako sare nagusian izan edo beren iritzian izan daitekeen edozein matxura edo hondaketaren berri eman behar dio Udalari.

8) Erabilerak eta horniduraren irismena: abonaturako pertsonak kontratatutako urari dagokion erabilerara emateko obligazioa dauka.

9) Era berean, kontratatutako horniduran gehikuntzarik edo hartzaileen kopuruan aldaketarik ekarriko lukeen instalazioetako edozein aldaketaren berri eman eta Udalaren baimena jasotzeko obligazioa daukate abonatuak.

10) Aipaturiko arrazoi hori tarteko neurketarako aparailuren bat aldatu beharko balitz, abonaturakoak egingo du, bere kontura. Udalak ere egin ahal izango du, abonaturako pertsonak hala eskatzen badiot, baina hala eginez gero sortzen diren gastu guztiak abonaturako pertsonaren konturakoak izango dira eta jarri beharreko ekipoari egokitzea ere bere gain egongo da.

11) Bajaren berri ematea: uraren hornidura zerbitzuan baja eman nahi duen pertsona abonatuak bere nahiaren berri Udalari emateko obligazioa dauka eta, beti ere, hornidura zerbitzuari amaiera eman nahi dion data adierazi beharko du.

12) Titularra aldatzen edo kontratuaren subrogazioa egiten denean, aldaketa data jakinarazteaz gainera, egun horretan kontagailuaren irakurketak ematen duen emaitza aditzera emango da.

13) Ur-emariaren berreskuratzea: ura energia eroale gisa erabiltzen dituzten hozketa ekipoak edo izozketa instalazioak edota beren instalazioetan igerilekuak dituzten pertsona abonatuak, ura birziklatzeko ekipoak jarri beharko dituzte beren instalazioetan.

14) Instalazioen bereizketa: finka berean banaketa publikoko urarekin batera beste jatorriko urik dagoenean, abonaturako pertsonak ura ibiliko edo bilduko duen sare eta instalazio desberdinak jartzeko obligazioa izango du eta bata eta bestea nahasteko ezein arrisku ekidin beharko.

15) Ura arrazoizko eran erabiltzea, zarratzelkeriak ekidituz eta ura aurrezteko xedez Udalak sustatutako kanpainetan laguntza ematea.

11. artikulua. Abonatutako pertsonen eskubideak.

Egoera berezien ondorioz abonaturako pertsonari egotz lekizkiokeen beste eskubide haiez gain, honako eskubide hauek izango ditu izaera orokorrean:

- Uraren edangarritasuna: indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren edangarritasun baldintzak betetzen dituen ura jasotzea bere instalazioetan.

- Zerbitzu etengabea: edateko uraren hornidura etengabea izatea, hornidura kontratuan ezartzen diren baldintzen arabera eta Araudi honetan eta gainontzeko xedapen aplikagarrietan finkatzen diren bestelako mugarik gabe.

- Fakturazioa: jasotzen dituen zerbitzuen ordainketarako, une bakoitzean indarrean dauden kontzeptuak eta kopuruak faktura dakizkion.

Irakurketaren maiztasuna: hornidura kontrolatzen duen neurketa ekipoaren irakurketa lau hilabeteko epeaz behetiko maiztasunarekin egitea Hernaniko Udalak.

Fakturazioaren maiztasuna: jasotzen dituen zerbitzuen fakturazioa, lau hilabeteko gehienezko epean jasotzea.

- Kontratua: araudi honen 60. atalean finkatzen diren hornidurarako oinarritzko baldintzak jasoko dituen kontratu bat egitea, idatziz.

- Barneko instalazioak gauzatzea: abonaturako pertsonak bereak hautatzea libreaki barneko instalazioak egingo dizkion instalatzaile baimendu bat eta materialaren hornitzailea bera hautatzea, beti ere, arauz eskatu daitezkeen baldintza teknikoak bete beharko baditu ere materialak.

- Erreklamazioak: Udalaren edo bere enplegatuen jardueraren aurkako erreklamazioak jartzea, Araudi honetan jasotzen diren prozedurei jarraiki. Erreklamazioa uraren hornidura baldintzak betetzearekin lotuta dagoenean, erreklamaziogileak hornidura kontratuaren titularra edo haren legezko ordezkari dela egiaztatu beharko du.

- Informazioa: zerbitzuarekin eta funtzionamenduarekin lotutako gai guztiak, norberaren hornidurarekin lotutako gaietan, kontsultatzeko; bai eta idatziz jasotzeko erantzuna ere, prozedura hori erabiliz egin diren kontsultetan. Era berean, eskatzaileak eskubidea izango du, horrela eskatuz gero, aplikagarri zaion eta indarrean dagoen Araudiaren berri eman dakion eta, Hernaniko Udalak Araudi honen ale bat utz dakion, abonaturako pertsonaren harrerarako bulegoan irakur dezan.

- Ziguilua kentzea: premia larria gertatuz gero, instalatzaileak kontagailuaren ziguilua ken dezake eta horren berri Udalari eman beharko dio, kendu eta 24 orduren barruan.

III. ATALBURUA: INSTALAZIOAK

12. artikulua. Banaketa sarea.

Banaketa sarea hodi guztiek eta edateko ura presioan daramaten maniobra eta kontroleko gainontzeko elementuek osatzen dute; bertatik ateratzen direlarik abonatutako pertsonentzako ur hartuneak.

13. artikulua. Arteria.

Arteria da hornitutako zonaldeko sektore desberdinak lotzen dituen hodia eta banaketa sarearen barne, berarekin lotuta dauden gainontzeko elementuak. Arteriatan ezin daitezke ur-hartuneak atera.

14. artikulua. Bide hoditeria.

Bide hoditeria osatzen dute, bide batetan zehar doazen banaketa sareko hodiak eta berauetatik, hala balegokio, hornidurako hartuneak, ureztaketa-hartuneak eta suteetako ur-hartuneak atera daitezke.

15. artikulua. Hartuneak.

Bide-hoditeria hornitu nahi den finka, lurzati edo dena delakoaren barneko instalazioarekin lotzen dituen hodien eta gainontzeko elementuen multzoak dira.

1 Hartuneak, gutxienez ere, honako elementuak eduki behar ditu:

- a) hartune-giltza bat edo kargako hartune-lepoa, horniketako kanpoko sarearen hodi banatzailearen gainean, hartunea irekitzeko;
- b) hartune-hodia, hartune-giltza eta mozketa orokorreko giltza elkarrekin lotzeko;
- c) Mozketa-giltza, jabetzaren kanpo aldean jarriko dena.

Hernaniko udal barrutian proiektuak idatzi, kontrolatu eta lanak hartzeko ordenantzaren arabera, hartune-giltzaren eta finkaren kanpoko hormaren arteko tartea 5 m-tik gorakoa bada jarriko da mozteko giltza.

2 Hartunea ur-bilketa pribatutik egiten bada edo ur-hornidurarako sare orokorrerik ez dagoen landa-eremuan egiten bada, honako ekipoak jarri beharko dira, ur-bilketarako behar denaz gain: oineko balbula, ura leku batetik bestera aldatzeko ponpa eta erregistro eta mozketa orokorreko balbulak.

16. artikulua. Ur horniduraren instalazio orokorrak.

Ur horniduraren instalazio orokortzat honako hauek hartuko dira: hodien multzoa eta bere kontrol, maniobra eta segurtasunerako elementuak; baina beti ere, uraren zirkulazioari jarraiki, pasabide-giltzaren ondoren kokaturik daudenak.

Instalazio orokorrak, onartutako eskemaren arabera, ondoren datozen ataletan aipatzen diren elementuetatik dagozkionak eduki behar ditu, hauek alegia:

Mozketa orokorreko giltza: mozketa orokorreko giltza eraikinaren horniketa eteteko izango da, eta jabetzaren barruan jarriko da, erabilera komuneko zonaren batean, bertara erraz iristeko moduan eta erraz identifikatzeko eran seinalatuta. Kontagailu

orokorraren armairu edo kutxetarikz balego, horren barruan jarri behar da mozketa orokorreko giltza.

Instalazio orokorraren iragazkia: instalazio orokorraren iragazkiak hoditeria metalikoa herdoildu ditzaketen ur-hondarrak atxiki behar ditu. Iragazki hori mozketa orokorreko giltzaren jarraian jarriko da. Kontagailu orokorraren armairu edo kutxetarikz balego, horren barruan jarriko da. Iragazkiak Y motakoa behar du izan; iragazpen-muga 25 eta 50 μm bitartekoa izango da; sarea altzairu herdoilgaitzezkoa, eta zilarreztatua, bakteriorik ez sortzeko, eta berez garbitzeko modukoa. Garbitzea eta artatzea behar bezala egiteko moduan jarriko da iragazkia, eta eginkizun horiek horniketa moztu beharrik gabe egiteko moduan.

Kontagailu orokorraren armairu edo kutxeta:

Kontagailu orokorraren armairu edo kutxetak honako elementuak edukiko ditu barruan eta hemen aipatzen diren ordena berean: mozketa orokorreko giltza, instalazio orokorraren iragazkia, kontagailua, probak egiteko iturria edo errakorea, atxikitzeko balbula eta irteerako giltza. Horren instalazioa lurrari paraleloan dagoen planoan egingo da.

Irteerako giltzak eraikinaren horniketa mozteko aukera eman behar du. Mozketa orokorreko giltzak eta irteerakoak kontagailu orokorra jarri eta kentzeko balio behar dute.

.

Elikatze-hodia:

Elikatze-hodiaren ibilbidea erabilera komuneko zonetan zehar joango da. Horman txertatzen bada, erregistroak jarri behar dira instalazioa ikuskatu eta jarioak kontrolatzeko; erregistro horiek hodiaren ertzetan eta norabidea aldetzeko lotunetan jarriko dira.

Banatzaille nagusia

Banatzaille nagusiaren ibilbidea erabilera komuneko zonetan zehar joango da. Horman txertatzen bada, erregistroak jarri behar dira instalazioa ikuskatu eta jarioak kontrolatzeko; erregistro horiek hodiaren ertzetan eta norabidea aldetzeko lotunetan jarriko dira.

Eraikin berezietan, hala nola osasun erabilera dutenetan, eraztunak eratuko dira banaketarako. Hartara, matxuraren bat gertatzen denean, bermatuta egongo da barruko horniketa.

Goranzko hodiak edo hodi-muntagak

Goranzko hodiak edo muntagak eraikineko erabilera komuneko zonetan zehar joango dira.

Holako hodiak berariaz egindako leku edo husgunetan zehar joango dira. Aipatutako leku edo husgune horiek erabilera partekatukoak izan daitezke, baldin eta erabilera horiek eraikineko ur-instalazioak badira. Leku edo husgune horiek erregistratzeko modukoak izango dira eta tamanaina egokikoak, bertan mantentze lanak egin ahal izateko.

Goranzko hodiekin erretentzio-balbulak edukiko dituzte oinean, hau da, mozketa-giltza bat mantentze-lanetarako. Mozketa-giltza horiek erraz iristeko lekuan kokatuko dira, eta erraz ikusteko moduan seinalatuta. Erretentzio-balbua, lehenbizi, uraren zirkulazioaren zentzuan jarriko da.

Goialdean purgatzeko gailuak jarri behar dira, automatikoak edo eskuzkoak; banatzailea edo ganberatxo bat edukiko dute, uraren abiadura murriztuz eta hodiaren barruko airea kanporatzeko, baita batzuetan gertatzen diren ariete-kolpeen eraginak gutxitzeko ere.

Banakako kontagailuak

Banakako kontagailuak eraikineko erabilera komuneko zonetan jarriko dira, leku irisgarri eta libreetan.

Instalazioa aldeztu aurretik egokituko da, kontagailuen urrutiko irakurketarako gailuak lotu ahal izateko eran.

Banakako kontagailu bakoitzaren aurretik mozketa-giltza jarriko da, eta kontagailu bakoitzaren ondoren erretentzio-balbula jarriko.

17. artikulua. Saneamenduko hartuneak.

Eraikuntzaren barneko instalazioak bide-hoditeriarekin lotzen dituzten hodian eta gainontzeko elementuen multzoak dira.

Hartuneak Araudi honen eranskinean agertzen den eskemari erantzungo dio eta honako elementu hauek osatuko dute:

a) Abio-kutxeta: beti jabetzaren mugaren ondoan egongo da, finkaren kanpoko aldean.

b) Garraio-hodiak: hasierako kutxetatik saneamendu sareko lotura putzuetara bitarte doazen hodi zatiak dira.

c) Lotuneak: hartuneko hodiak eta estolderia sarea elkartzen diren gunek dira.

IV ATALBURUA: INSTALAZIO OROKORRAK

18. artikulua. Baldintza orokorrak.

Uren hornidurako barneko instalazioak baimendutako instalatzaile batek gauzatuko ditu eta, CTEk agintzen dituenetara egokituko dira.

Instalazio hauen artapena eta zaintza, une bakoitzean gunek horretan dauden eta horniduraren titularrak diren pertsonen kargurakoak eta konturakoak izango dira.

19. artikulua. Instalazio motak.

Uraren hornidurako barneko instalazioak gauzatzeko eta martxan jartzeko behar den administrazio baimena izapidetzeko ondorioetarako, CTEn jasotzen diren multzoetan sailkatuko dira instalazioak.

20. artikulua. Zerbitzuari ekiteko baimena.

Barneko instalazioetan zerbitzuari ekiteko baimena jasotzeko aurkeztu behar den dokumentazioa eta egin beharreko izapideak aurreko artikuluan xedatutakoaren eta kasu bakoitzarentzat CTEn ezartzen diren betebeharren arabera izango dira.

21. artikulua. Barneko instalazioen aldaketa.

Hornidura eta saneamendu zerbitzuan abonatuta dauden pertsonak, barneko instalazioen egituran edo ezaugarrietan edozein aldaketa egiteko baimena eskatu behar diote derrigor Udalari.

22. artikulua. Ikuskaritza ahalmena.

Hernaniko Udalaren dagozkion zerbitzuek abonatutako pertsonen instalazioak ikuskatu ahal izango dituzte, hornidura nola eta zein baldintzetan erabiltzen den zaintzeko xedez.

V. ATALBURUA: HARTUNEAK

23. artikulua. Baimena ematea.

Edateko uraren hornidurarako baimena ematea Udalari dagokio eta Araudi honetan ezartzen diren baldintza eta egoerak betetzen diren guztietan eta bertan jasotzen diren arauen arabera emateko obligazioa dauka.

24. artikulua. Baimenaren baldintzak.

Uraren hornidurarako hartune bat jartzeko baimena, hornidura osorako baldintzak betetzearen menpe egongo da; ondoren zehazten diren baldintzapean, alegia:

1.Hornitu behar den eraikina horniduraren estaldura eremuaren barne egotea.

2.Hornitu nahi den eraikinak barneko instalazioak izatea eta Araudi honetan jasotzen diren arauetan ezartzen diren baldintzetara egokitzea.

3.Hornitu nahi den eraikinak isurketen eta euri uren hartune bat izatea edo/eta bestelako ebakuazio sistema bat izatea; kasu honetan, horretarako behar dituen baimen guztiak izan beharko ditu.

4. Eraikinaren mugakide diren izaera publikoko kale edo plazetan, edo/eta bere fatxadaren aurrean, edateko uraren banaketa sare publikoko instalazioak izatea eta martxan egotea.

5. Bide publiko batean ura eramateko hoditeria bi espaloietan proiektaturik badago ere, aurreko pasartean aipatutako aurreko espaloiaren beste aldekoan izatea hoditeria, ez dakar berez aurreko pasartean jasotako baldintza betetzea.

6. Eraikina hornitu behar duen hoditeria zerbitzua emateko egoera ezin hobean egotea eta bere garraio ahalmena, desbideratu behar den hartuneko erregimen hidraulikoaren lau halako izatea.

25. artikulua. Jarduerak estaldura eremuan.

Araudi honetako 6. Artikuluan definitutako estaldura eremuaren barne hornidura osorako baldintzak ematen direnean eta hartunerako dagokion baimena izapidetu denean, Udalak eskatutako hartunea edo hartuneak jartzeko beharrezko diren lanak eta instalazioak egiteko obligazioa dauka; eta, bestalde, aipatutako emakida indarrean den egunetik hurrengo hamabost lanegunetako epearen barne egin beharko ditu dagozkion lanak.

Udalaren estaldura eremuaren barne egon arren, hornidurarik ez duten tokietan horniketa berrien emakida egiteko edo, horniketarik izanik, inguru horretan dauden instalazioen zabalpen bat edo aldaketa bat ekar dezaketen emakidak egiteko baimenak, Udalaren iritziko aukera teknikoen eta berak onartutako inbertsio planetan jasotzen diren lehentasunen arabera emango dira.

Nolanahi, kontsumitu nahi den puntutik hurbil banaketa sarerik ez badago, Hernaniko Udalak eskatzaileari exijitu diezaioke Banaketa Sarearen luzapena hartunea jartzeko baimentzen den punturaino. Luzapena Udalak jarritako ezaugarri teknikoen arabera egingo da eta eskatzailearen kontura. Banaketa Sarearen luzapenaren obrak amaitutakoan, tarte berria Udalaren jabetzako izango da, eta horregatik eskatzaileak konpentsazio gisa ez du inongo kopururik jasoko.

Eraikitako luzapena eskatzailearen hurbilean dauden lekuetan horniketa berriak elikatu ahal izateko erabil dezake Udalak, beti ere, tarte horren edukiera gaintitzen ez badu, egiterakoan ezarri zitzaizkion neurriak kontuan izanda.

Hartuneak eskatzailearen kargura egingo dira, Araudi honek ezarritako ezaugarrien arabera. Udalak lanak nola gauzatu diren ikuskatu ahal izango du, egokiro gauzatu ez direnean horniketa ez emateko ahalmena du, akatsak zuzendu arte.

Hartuneak edo hartune adarrak erabiltzaileen jabetzako geratuko dira. Haiena izango da beraz artapenaren, gerta daitezkeen matxuren eta funtzionamendu txarragatik sor daitezkeen kalteen erantzule, salbu eta hartunearen lepoaren eta hartune giltzarena, horien mantentzea Udalaren ardura izango baita.

Nolanahi ere, Hernaniko Udalak ez du ur emari baten hornidura presio jakin batekin egiteko obligaziorik.

Ur emari jakin batetarako nahikoa presiorik izango ez balitz, eskatzaileak berak jarri beharko du presioa handitzeko sistema partikular bat eta haren artapen lana egin.

Batek edo batzuek egindako eskaerari kasu egiteko, sarea eskatzaile horien etorkizuneko premia aurreikusiei erantzuteko behar denerako baino gehiagorako zabaltzen edo aldatzen denean, gastua erabiltzaile berrien eta etorkizunekoan artean banatuko da. Horretako, sarean dabilen ur-emariarekiko erabiltzaile bakoitzari bideratzen zaiona izango da kontuan.

Sarearen zabalpen edo aldaketa oro egiteko Udalak finkatutako baldintza teknikoak jarraitu beharko dira.

Udalak ez du inolako obligaziorik izango, sare eta instalazioetan egin beharreko aldaketa, luzapen eta errefortzuak hirigintza jardueren ondorio izanik ere, aipatutako sare eta instalazio horien taxuketa edo kokapena traba, oztopo edo menpekotasunik sortzen duenean.

Estaldura eremuaren barne sortzen diren poligono eta urbanizazio berrien barne egiten diren jarduerak, artikuluko honetako aurreko puntuetan ezartzen diren betebeharrak eta baldintzetatik salbuetsirik egongo dira eta ondorengo artikuluan ezartzen diren baldintzen arabera arautuko.

26. artikulua. Urbanizazioak eta poligonoak.

Araudi honen ondorioetarako urbanizazio eta poligono iritziko dira burutu beharreko hirigintza jarduerak bide eta zerbitzu azpiegitura sortzea, aldatzea edo zabaltzea eragin dezaketen guneak; hau da, lursaila banatzen den lurzati edo orube desberdinen arteko eta berauetatik hiriguneko zonaldearekin lotzeko azpiegiturak eragiten dituzteneko guneak.

Aurreko pasartean definitutako poligono edo urbanizaziorako edo bertan kokatutako orube edo eraikinen hornidura edo hartunearen emakida, ondoren zehazten diren baldintzak aldeztatik aurretik betetzearen menpe egongo da.

a) Aipatutako urbanizazio edo poligonoen ur hornidura zuzenerako behar diren barneko banaketa sareak eta gainontzeko instalazioak Udalak onartutako eskemen arabera burutu eta, gai den teknikari batek definitu eta egindako proiektu batean jaso beharko dira, ondoren Udalak onartzeko. Aipaturiko proiektua aplikagarri diren Erregelamenduetara eta Udalak ezarritako Arau Teknikoetara egokitu beharko da. Eta proiektua urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura gauzatuko da.

b) Onartutako proiektuan definitutako obrak eta instalazioak, bai eta Udalaren baimenarekin proiektua gauzatzen den bitartean izan daitezkeen aldagetak, urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailearen edo jabearen kargura burutuko

dira bere osotasunean eta beti ere, eskumena duen Teknikari baten eta, kasu balitz, Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzak homologatutako enpresa instalatzaile baten zuzendaritzapean.

Udalak obrak gauzatzen diren bitartean edo obra hartzeko edo zerbitzuari ekiteko unean, obrak egoki gauzatu eta proiektuan aurreikusitako materialaren kalitate-ezaugarriak errespetatu direla bermatzeko beharrezko irizten dituen proba eta saio guztiak exijitu ahal izango ditu, eta proba horietatik eratorritako gastuak urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kargura izango dira.

Urbanizazioaren edo poligonoaren sustatzailea edo egileak ezingo du inoiz, Udalaren alde aurreko baimenik gabe eta dagokion emakidarik jaso aurretik, uraren hornidura egin bertako eraikinetan, orubeetan edo lur-zatietan.

c) Poligonoen barneko sareen eta Udalaren menpeko kanpoko sarearekiko lotura edo loturak, eta urbanizazioak berak ezarritako behar berrien ondorioz egin beharreko aldaketa eta errefortzuak Hernaniko Udalak finkatuko ditu eta artikulua honetako a) pasartean aipatzen den proiektuan jasoko dira argi eta garbi; eta gauzatu, berriz urbanizazioaren sustatzailearen edo jabearen kontura eta kargura gauzatuko dira.

Behin sareak eta sistema orokorrarekiko loturak egin ondoren, Udalaren jabetzakoak izatera igaroko dira; alabaina, obrak ez badira Udalak finkatutako irizpide teknikoaren arabera gauzatu, Udalak obra hartzeari uko egin diezaiolke eta sistema orokorrarekiko loturak egiteko baimena ezeztatu.

Horniduraren emakida landa lurlean edo lurzoru ez-hiritargarrian ematea, indarrean dagoen hirigintza legediak baimentzen dituen balizkoetara mugatzen da.

Hartuneko giltzako irteeratik aurrera gainerako hartune guztia abonatuaren jabetzakoak izango da; hura izango da mantentze-lanen eta artapenaren erantzukizuna izango duena eta, matxuratuz gero, hark ordaindu beharko du konponketa.

27. artikulua. Ureztaketa-hartuneak.

Udalak ur hornidura ureztaketa-hartuneen bidez kontratatu ahal izango du, inoiz ez zutabe hidranteen bidez. Hornidura hau diskrezionalki eman ahal izango die eskatzen duten interesatuei. Kontratu hauen indarraldiaren gehieneko epea hiru hilabetetakoak izango da. Kontratatu beharreko bolumena Hernaniko Udalak zehaztuko du eta ez da eguneko 5 m³ baino gutxiagokoa izango. Ureztaketa hartuneen bidezko behin behineko hornidura, kontratua indarraldian dagoen eperako erabaki den kontsumoarena izango da eta alde aurretik ordaindu beharko da; aldi berean, ureztaketa hartuneetan izan daitezkeen kalteei aurre egiteko fidantza edo berme bat jarri beharko da. Kontratuaren indarraldia amaitzean balioetsitako eta benetako kontsumoaren arteko diferentziaren kitapena egingo da.

Ureztaketa hartune hauetako behin behineko loturak abonatuaren pertsonak egingo ditu «orejera» edo hodi hariztatuaren bidez eta kanila izan beharko du,

uraren isurketa librea eragozteko. Aipatutako hartuneak uzten diren bakoitzean ondo itxita utzi beharko dira, ur galera alferrikakoak ekiditeko. Hodiaren hariztaketa edo «orejera» hartunearen neurri berekoa izango da. Oker erabiltzeagatik hartuneetan izan daitezkeen kalteak konpontzeko gastuak abonatutako pertsonaren konturakoak izango dira, eta ezarritako fidantzarik murriztuko.

Kontagailua hodiaren edo «orejeraren» gainean jarriko da eta Udalak emango duen identifikazio txartelaren bidez identifikatuko da. Ikusteko moduan egongo da une oro eta Udalak erabakitzen duen moduan itsatsiko zaio kontagailuari. Instalazioa abonatutako pertsonaren kargura egingo da eta ez dezaten ostu edo narriatu zaintzeko segurtasun neurriak hartuko ditu. Kontagailuak 38. Artikuluan jasotzen diren ezaugarriak izan beharko ditu.

Abonatutako pertsonak Udalako langileei edo hark baimendutako pertsonalari edo Udaltzainei hornidura kontratua erakutsi beharko die, hala eskatuz gero.

Ikuskaritzaren ondorioz ura galtzen edo erabilera ez egokia ematen zaiola egiaztatuko balitz, kontratua iraungitzeari eta hornidura eteteari ekingo zaio. Abonatutako pertsonak, horniduran erabiltzen dituen hodiak eta mahukak modu egokian babestu eta zaindu beharko ditu, jariorik izan ez dezaten.

Abonatutako pertsonak, kontratuaren indarraldiaren barne, kontratatutako hartunea, batetik bestera eraman nahiko balu, aldeztatik eskatu egin beharko du eta eskaeran ureztaketa-hartune berriaren kokapena eta kontagailuak une horretan erakusten duen neurketa adierazi beharko ditu.

Bide publikoa ureztatzeko kontratuak urte beteko indarraldia izango dute eta ez dituzte aurreko puntuan jasotako obligazioak bete behar. Alabaina, hilero jakinarazi beharko diote Udalari kontagailuaren neurketa eta, urtean behin, Zerbitzuak erabakitzen duen garaian, kontagailua eta bere «orejera» aurkeztu beharko dituzte udalean egiazta ditzaten.

28. artikulua. Hartuneen ezaugarriak finkatzea.

Hartuneen ezaugarriak, non materialen neurriei, osagaiei, motari eta kalitateari dagokionez, eta non gauzatzeko moduari eta lotura guneari dagokionez, Udalak finkatuko ditu, hornitu beharreko eraikinaren erabilerari buruzko CTEn ezarritakoaren arabera, aurreikusitako kontsumoaren eta presio baldintzen eta eranskinean jasotzen diren berezitasunen arabera.

Ondorio horietarako, merkataritzako lokalen eta zehaztu gabeko erabilerako solairuen, edo eraikuntza banaketarik edo egitura espresu jakinik gabekoen kontsumoa 0,02 l/seg/m²-tan finkatuko da. Nolanahi ere, bere garaian egiten den eskaeran, kontsumo erreala aipatutako ur-emaritik gorakoa denean, eskatzaileak, eta eskaeraren ondorioz erator dakizkioken gainontzeko betebeharren kalterik gabe, emariaren hazkuntza horrek berez hartunearen ezaugarrietan eragin ditzakeen aldaketen ondorioz sor daitezkeen gastuak ordaindu beharko ditu bere kargura.

Aurreko pasartean jarritako kasuan, eta kontagailuen baterien dimentsionamenduaren ondorioetarako, 25 m² bakoitzeko, gutxienez, merkataritzako lokal bat dagoela iritziko da.

29. artikulua. Eskaeren izapidaketa.

Hartunearen eskaera interesa duen pertsonak egingo du Udalaren erregistroan. Horretarako udalak emango dion eskaera-orri normalizatua bete beharko du.

Eskaerarekin batera, gutxienez, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

a) Kokapenaren, iturgintzaren, saneamenduaren eta suteen aurkako hartuneen planoak eta, hala balegokio, instalazioaren ezaugarri nagusien orria.

b) Jabetza eskritura edo hornidura zein ondasun higiezinarako eskatzen den, haren erabilgarritasuna egiaztatzen duen agiria, Ondasun Higiezinaren Zergaren errezipa zenbakia adierazita.

c) Obretarako Udal Lizentzia.

d) Dagokion baimena, hartunearen ibilbidea beste jabetzaren batetik igarotzen bada, jabetza pribatua nahiz publikoa dela.

Eskatzaileak aurkezten dituen datuen arabera, eraikinaren ezaugarrien eta banaketa sareen egoeraren arabera, Udalak, eskaera aurkeztu eta gehienezko **hogeita hamar** laneguneko epean, interesatuari jakinaraziko dio eskatutako hartunearentzako edo hartuneentzako baimena ematen dion ala ukatzen dion eta, kasu horretan, baimenik ez emateko arrazoiak azalduko dizkio.

Eskatzaileak, berriz, beste **hogeita hamar egun naturaleko** epea izango du Hernaniko Udalak egindako errekerimenduei erantzuteko edo, kasua balitz, egoki irizten dituen alegazioak aurkezteko.

Honakoak dira interesdunak epe horren barruan formalizatu beharreko betebeharrak:

1. Dagozkion udal tasak ordaintzea.
2. Kontu bat helbideratzea, egindako lanen ordainagiriak bertara kargatzeko.
3. Udalak zehaztuko duen fidantza gauzatzea. Fidantza horrek proportzio bat gordeko du eraiki beharreko etxebizitza-kopuruarekin, eraiki beharreko pabilioi industrialaren zabalerarekin edo oro har obraren tamainarekin, eta aipameneko instalazioagatik sor daitezkeen balizko kalte eta galerei erantzuteko modukoa izango da eta,aldi berean, instalazioaren behin-behinekotasuna bermatuko du. Eskaera egin duenak Ur Zerbitzuari jakinarazten dionean berak egin zuen eskariaren xedea amaitu dela, fidantza itzuli egingo zaio eskatzaileari oso-osorik edo dagokion zatia.

Epe hori araututakoa bete gabe igaroko balitz, eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, eta Udalak ez du bestelako betebeharririk izango.

Eskaera onartu ondoren, Hernaniko Udalak, **hogeita hamar laneguneko** gehieneko epean, hartuneak edo hartuneek izan behar dituzten ezaugarriak eta baimenaren eta obrak gauzatzeko baldintzak jakinaraziko ditu.

30. artikulua. Emakidaren xedea.

Edateko uraren banaketa sarean hartunea izateko baimena emango zaio, eraikuntza unitate independentea osatzen duen eta bide publikorako irispide zuzena duen higiezin bakoitzari.

Araututakoa betetzearen ondorioetarako, eraikuntza unitate independentea izango da, sarrerako atari bakarria duten etxebizitza eta/edo lokalen multzoak osatzen duten eraikina.

Eraikuntza unitate independentearen beheko oinetan kokaturik dauden lokalek, sarrera-atari berdina ez izan arren, higiezinaren kontagailuen bateria orokorretik hornitu beharko dira.

Industria- eta merkataritza-pabilioien kasuan, unitate bereizitza joko da eraikin osoa, nahiz eta hori zatituta egon eta jabe bat baino gehiagorena izan. Sail bakoitza kontagailuen bateria orokorretik hornituko da.

31. artikulua. Emakida gauzatzea.

Emakidaren baldintzak bi aldeek onartu ondoren eskatutako hartunearen emakida egingo da . Dena den, emakidak ez du indarrik izango eskatzaileak Erregelamendu honen eta Ordenantza Fiskalen arabera dagozkion betebeharrak ekonomikoak betetzen ez dituen bitartean.

32. artikulua. Obrak gauzatzea eta artapena.

Uren hornidurako hartuneen obrak Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzak baimendutako pertsona batek gauzatuko ditu, Araudi honetan gai honen inguruan ezarritakoaren arabera. Hartunearen artapena eskatzailearen kontura izango da, hartunearen lepoa eta ura hartzeko gailuarena izan ezik, Udalaren ardurakoak izango baitira.

Hartune-giltza babesten duen kutxeta desegin eta berriro egin behar bada, Udalaren kargura izango dira lan horren gastuak matxura karga-lepoan, hartune-giltzaren konexio-hodian eta hartune-giltzean bertan gertatu bada.

Hartune-giltzaren irteeran gertatu bada matxura, gastuak abonatuaren kargura edo abonatu-multzoaren kargura izango dira.

Hartunearen ibilbiderako ireki eta itxi beharreko zantzetako obrak, hala bide publikoan nola jabetza pribatuan, erretinak egin eta hormak eta zoladurak zultzeko lanak abonatuaren pertsonak ordaindu beharko ditu, kosteak bere kontura

izan eta obrak bere erantzukizunpean egingo dituelarik. Obrak gauzatzeko eta hartunea egokiro egiteko Udalak ematen dizkion argibideei jarraitu beharko dio.

Aurreko pasartean ezarritakoaren kalterik gabe, Udalak aipaturiko obrak gauzatu ahal izango ditu, beti ere haren kontura eta hark eskatuz gero.

Nolanahi ere, hartunea gauzatzearen kostua eskatzailearen konturakoa izango da. Horri dagokion ordainarazpena eta bilketa Ordenantza Fiskalak ezartzen duen moduan egingo da.

Instalazio hau Hernaniko Udalaren langileek edo hark baimendutako langileek bakarrik maneiatu ahal izango du; eta horrenbestez, uraz hornitzen den higiezinaren jabeak ezingo du, Udalaren baimen espresik gabe, inolako aldaketarik egin inguru horretan.

33. artikulua. Hartunearen eskubidea.

Udalaren hartune baten eskatzaileak ordaindu beharreko kopuru ekonomikoak dira eskubide horiek, hornidura berri hori izan aurretik zerbitzua ematen zen baldintza berdinetan ematen eta gainontzeko hartuneetan inolako kalterik eragin gabe jarraitzeko, banaketa sarean egin behar diren zabalpen, aldaketa, erreforma eta hobekuntzetarako inbertsioen balio proportzionala ordaintzeko.

Hartunearen emakidak berez darama eskatzaileak Udalaren ordenantza fiskalean aurreikusitakoaren arabera dagokion prezioa ordaintzea.

Hartunearen eskubideak osorik eta behin ordainduko dira; eta hala ordaindu ondoren dagozkien instalazioei atxikita geratuko dira, bere jabea edo erabiltzailea edozein delarik ere.

Abonatutako pertsona batek aurrez dagoen hartune baten sekzioa handitzea eskatuko balu, eskatutakoaren eta lehen zegoen hartunearen arteko zenbatekoaren diferentzia adinako kopuru baten ordainketa egin beharko du. Gainera, une horretan berraztertu egingo da bere garaian jarritako fidantza.

VI. ATALBURUA: SANEAMENDUA

34. artikulua. Baldintza orokorrak.

Saneamenduko zerbitzuari Araudi honetan jasotako xedapenak aplikatuko zaizkio izaera orokorrean, beti ere, bere izaera espezifikoa aplikatuko hornidura zerbitzuari bakarrik aplikagarri zaizkion haietan izan ezik, eta ondorengo artikuluetan xedatutako berezitasunen kalterik gabe.

Aurreko pasartean ezarritakoaren ondorioetarako «hornidura», «hornidura edo horniketa», «kontsumoak» eta «hornitu» terminoak «hustuketa», «saneamendua», «isurketak» eta «ebakuazio sistema dutenak» terminoei egiten die erreferentzia.

Udalak ez du, galtzada azpitik 0,80 metrotatik beherako sakonera kotarik baino handiagorik emateko obligaziorik.

Isurketaren kota kolektorearena baino txikiagokoa denean, eskatzaileak hondakin urak igotzeko ekipo bat instalatzeko eta mantentzeko gastuak ordainduko ditu bere kontura.

Isurketaren kota kolektorean dagoena baino txikiagoa bada, eskatzaileak ordainduko ditu dagokion jasotze ekipoaren instalazioaren eta zaintzaren gastuak, eta arau orokor gisa, eraikinaren edo finkaren barruan jarriko da.

35. artikulua. Hartuneak.

Saneamenduko Hartunea Udalak adierazten eta hark irizten duen punturik egokienean lotuko zaio saneamenduko sare nagusiari, eta eginda dagoenean Hernaniko Udalarena izango da.

Saneamenduko hartuneak beren diseinuan eta eraiketan iragazgaitasuna bermatuko dute, batez ere, saneamenduko sarearekin lotzen diren puntuetan. Udalak hartunearen puntuan eta sarearekin lotzen den unean kutxetak jartzea exiji dezake, bai eta bestelako kutxetak egitea, emarien kontrol eta edukierarako, eta dagozkien neurketarako sistemak jartzea ere. Eta hori guztia, Udalak ematen dituen zehaztapenak betez gauzatuko da. Nolanahi ere, saneamenduko hartuneak estrukturalki irauteko proiektatu eta gauzatu beharko dira, bai eta, garraiatu behar diren uren erasokortasuna bermatuko duten ezaugarriekin ere.

Hernaniko Udalak isurketen eta euri-uren hartune independenteak instalatzea exijituko du, bai eta, ondorioz, ebakuazio zerbitzua izango duen eraikin edo finkan sare berezituak egitea ere.

Udalak isurkinen kontrol berezia egitea beharrezkoa edo komenigarria deritzon kasuei begira, isurkinen neurgailua kokatzeko sistema bat diseinatu eta adieraziko du; eta hori, derrigorrez instalatu beharrezkoa izango da.

Udalak isurketen laginak jasotzeko kutxetak, berak onartutako diseinuaren arabera eraikitzea exiji dezake.

Arau hau eman baino lehenagoko instalazioetan, abio-kutxetarik ez dutenetan, alegia, instalazio partikulartzat joko da, jabetzaren mugak gaindituta ere, puntu honen eta bide publikoan dagoen erregistratzeko lehen puntuaren bitartean dagoen instalazioa.

Instalazio honen jabeak Udalari galda diezaioke hartunea sare publikoaren barruan sartzeko baldin eta alde zuzenetik kanalizazio hori egokitzeko lanak gauzatzen baditu eta abio-kutxeta ordenantza honetan bertan ematen diren arau teknikoaren arabera egiten badu.

Zati horren harrera egin aurretik, zerbitzuko teknikari arduradunak TV ikusketa egingo du partikularraren kargura, eta hartzekotan den instalazioaren egoera ona ziurtatuko du.

Instalazioak gutxiengo eskakizunak betetzen ez baditu, partikularra izaten jarraituko du.

36. artikulua. Jarduerak estaldura eremuan.

Saneamenduko azpiegiturarik gabeko edo nahikoa saneamendu azpiegiturarik ez dagoen zonaldeetan erabiltzaileek irtenbide bereziak bila ditzakete, hala nola hobi septikoak edo beharrezkoak irizten diren bestelako arazketa sistemak jarritz; baina beti ere bai proiektua eta bai gauzaketa gai den teknikari batek egin eta kontrolatu beharko ditu.

Nolanahi ere, konponbide horiek eta ematen diren baimenak behin behineko izaera izango dute, Hernaniko Udalak finkaren inguruan saneamenduko sarerik ez duen bitarterako. Beraz, saneamenduko sarea finkaren ondotik igarotzen denean, Araudi honetan aurreikusitako moduan eta baldintza orokorretan ekingo zaio sarearekiko loturari.

Holako kasuetan, behin-behineko konponbide berezi horien jabeek derrigorrez eskatu behar dute udalaren obra lizentzia, sarearen hartunea egiteko eta behin-behineko instalazioa desegiteko.

Partikularrak, lan horiek egin ondoren, instalazio berriaren hartunea hartzeko eskatuko dio udal zerbitzuari.

Zati hori hartu aurretik, zerbitzuko teknikari arduradunak TV ikusketa egingo du partikularraren kargura eta hartzekotan den instalazioa egoera onean dagoela ziurtatuko du, baita behin-behineko instalazioa egoki kendu dela ere.

Aurreko pasartean aurreikusitakoaren ondorioetarako, saneamenduko azpiegiturarik gabeko zonaldeak iritziko dira, hartunea kokatu behar den inguru hartan kolektore sarerik ez dituzten zonaldeak.

Era berean, toki batek nahikoa saneamendu azpiegiturarik ez duela iritziko da, hartunea kokatu behar den toki horretan isurketa eskaera berri bati erantzuteko adinako garraio gaitasunik edo kotarik ez duen tokia.

Hernaniko Udalak ez du izaera bereziko etxe instalazioetako isurkinak bere gain hartzeko, garbitzeko eta saneatzeko obligaziorik, baldin eta Zerbitzuaren eta isurketen arazketa sistema partikularraren jabearen arteko akordiorik ez badago. Eta kasu honetan bi aldeen artean hitzartutakoari lotuko zaio eman beharreko zerbitzua, edo/eta, bestela, zerbitzu hori saneamenduari berez dagozkion zerbitzuak kobratzeko ordainetan ematen ez bada.

VII. ATALBURUA: KONTSUMOAREN KONTROLA.

37. artikulua. Neurgailuak.

CTEn kasu bakoitzerako ezarritakoaren kalterik gabe, horniketa ororen fakturaziorako oinarri gisa erabiliko diren kontsumoen neurketa kontagailuen bidez egingo da, kontsumoaren beraren berri emango duen bide bakarra izango dena, bestalde.

Arau orokor gisa, bide publikora ematen duten eraikinen kasuan, kontsumoaren neurketa honako era honetan egingo da:

- Kontagailu bakarra: eraikinean edo finkan etxebizitza bakarra edo lokal bat dagoenean, obretarako behin-behineko horniketaren eta poligonoetan obrak gauzatzen diren bitartean jarriko dira, barneko banaketa sareak Zerbitzuak hartzen ez dituen bitartean egingo dira.

- Banakako kontagailu sorta: etxebizitza edo lokal bat baino gehiago dagoen eraikinean derrigorrezkoa izango da bakoitzarentzat neurgailu bat eta zerbitzu amankomunetarako behar diren gainontzeko guztiak jartzea. Gaur edo bihar gehiago jartzeko modua aurreikusi beharko da.

Kontagailua edo kontagailuak eraikinaren jabe edo sustatzaileak jarri behar ditu bere kontura.

Nolanahi ere, Udalak barneko instalazioa hasten den puntuan kontagailu orokor bat jarri ahal izango du eta bere eginkizun bakarra instalazio horren barneko kontsumo osoa kontrolatzea izango da. Kontagailu honek ematen dituen datuak ez dute ondoriorik izango fakturazioan eta barneko instalazioan izan daitekeen edozein arazo igartzeko erabiliko da. Hala, edozein matxura izanez gero berehala jakinaraziko litzaieke abonatutako pertsoneri eta haiek dauden akatsak zuzentzeko obligazioa izango dute, beti ere Araudi honen 68. artikularen m atalean ezartzen den **zazpi eguneko** epearen barne.

Jabe bat baino gehiago dagoen sektore edo partzela pribatu baterako hartune bakarra dagoen industrialdeetan Udalak agindu ahal izango du kontagailu orokor bat jar dadila partikularren partzela independentearen mugan. Kontagailu orokor horren eta kontagailu partzialen baturaren artean alderik badago kontagailu partzialen artean banatuko da.

Zazpi eguneko epea igaro ondoren arazoak konpondu gabe badaude, aipatutako kontagailu orokorren alta jabeakideen izenean egin behar da. Jabeakideen Erkidegoari dagokio kontagailu orokorrean jasotako kontsumoa ordaintzea, Banakako enbataketan ez dagoena, diferentzia hauek finkan izandako kontsumoei baitagozkie.

Kontagailuaren edo kontagailuen neurriak eta ezaugarriak, erabili den sistema edozein delarik ere, Udalaren eskuduntza izango da; eta hala abonatutako

pertsonak, bere horniketa eskaeran egiten duen kontsumoari dagokionean adierazitakoaren arabera eta CTEn xedatutakoaren arabera finkatuko dira ezaugarriak.

38. artikulua. Neurgailuen ezaugarri teknikoak.

Ur-kontagailuen ezaugarri teknikoak uztailaren 21eko 889/2006 EDn (2006ko azaroaren 8ko EAOn argitaratua) xedatutakoarekin bat etorriko dira une oro, baita 2006ko azaroaren 8ko EAOn argitaratu ziren ED horretako akats-zuzenketarekin ere, edota 2008ko otsailaren 12ko EAOn plazaratu zen urtarrilaren 31ko ITC/279/2008 Aginduarekin.

39. artikulua. Kontagailu bakarra.

Babespen eta maniobra giltzekin instalatuko da armairu baten barnean, edo CTEn bidez finkatutako neurrietako ganbera batean, Udalak homologatua. Hernaniko Udalak homologatutakoa izango da eta helburu hori baino ez du izango. Eraikinaren beheko oinean kokatuko da, sarrerako atearen ondoan, eta fatxadaren horman txertatuta edo hornitu nahi den jabetzako itxitura baten barnean kokatuko da. Nolanahi ere, sarrera zuzena izango du bide publikotik.

Inoiz, eta behar bezala zuritutako arrazoiak tarteko, kontagailu bakarra, haren maniobra giltzak eta erretentzio balbula lurpeko ganbara batean kokatu ahal izango dira, baina kaletik sarrera zuzena eta jabetzaren fatxadatik edo itxituratik ahalik eta gertuen egon beharko dute.

Kontagailuaren armairua edo itxitura iragazgaitzak izango dira eta hustubidea, instalatzen den hartuneak eman dezakeen ur emari gehienezkoa ebakutzeko adinako izango da eta estolderiara jaitsiko zuzenean. Era berean, Udalak homologatutako ate eta sarrailak izango ditu.

40. artikulua. Banakako kontagailu bateria.

Banakako kontagailu bateriak helburu hori bakarrik izango duten lokaletan edo armairutan instalatuko dira. Eraikinaren beheko oinean, erabilera amankomuneko zonan kokatuko dira eta ataritik sarbide zuzena izango dute.

Kontagailuak biltzeko bateriak ofizialki onartutako eta homologatutako mota eta modelokoak izango dira.

Gainlehi bakoitzaren oinarrian eta banakako kontagailuen bateriaren lotunean bertan, ura banaketa sarera itzultzea eragotziko duen balbula bat instalatuko da.

Bateriak jasoko dituen lokalen eta armairuen baldintzak eranskinean jasotzen dira.

41. artikulua. Kontagailuaren jabetza.

Kontagailuak hasiera batez eraikineko jabe edo sustatzaileek jarriko dituzte beren kontura.

Kontagailuak homologatzeko zehaztapenak 38. artikuluan jaso dira.

Kontagailuaren lehen ordainagiria ordaindu ondoren, kontagailua Udalaren jabetzakoa izango da.

Abonatuari dagokio neurtze eta kontrolatzeko ekipoak zaintzeko ardurak, eta Hernaniko Udalari, ekipoak era egokian mantentzea eta maneiatzea, baita betebeharrak horietatik eratorri daitezkeen ondorioei erantzutea ere.

Izozte edo suteen ondorioz kalteak gertatzen direnean, abonatuaren konturako izango dira ordezkatzeko-gastuak.

42. artikulua. Egiaztapena egiteko derrigorrezkotasuna.

Araudi hau indarrean sartzen den egunetik aurrera, derrigorrezkoa izango da inolako salbuespenik gabe, uraren kontsumoaren fakturaketa egiteko oinarri gisa erabiliko diren eta instalatzen diren kontagailuen eta neurgailuen egiaztapena eta zigilaketa egitea.

Ondorengo egoerak ematen direnean, Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordekaritzak agindutako erakunde eskuduna arduratuko da, bere laborategi ofizial edo baimenduaren bidez, aparatuak egiaztatzeaz eta zigilatzeaz:

1. Aparailuen funtzionamendu arruntan eraginik izan dezakeen edozein konponketa lana egin edo zigilua hautsi behar izan denean.

2. Abonatutako pertsonak, Udalak edo Administrazio Publikoko edozein organo eskudunek eskatzen dutenean.

3. Horniduraren titulartasun aldaketetan.

Aparailuak arauz ezarritako baldintzak beteko ez balitu konpondu eta egiaztatua izan beharko da berriro.

Egiaztapenak laborategi ofizial edo baimendutako batean egin beharko dira; Nolanahi ere, kontagailua dagoen tokian ere egingo ahal izango da, Udalaren iritziz, egiaztapena laborategian egiten den eran eta aparailu eramangarriekin egin daitekeenean.

43. artikulua. Zigilaketa ofiziala.

Laborategi ofizialak edo baimendutakoak egiaztapenik egin dizkien kontagailuak edo aparailu guztiak zigilatuko ditu.

Egiaztapenaren ondoren jarritako zigilu ofizialak bermatzen ditu:

1.Kontagailua edo neurgailua onartutako sistema batekoa dela.

2.Erregularartartasun baten barne funtzionatzen duela.

Lehen instalazioko kontagailu berrietan, egiaztapen data gisa, laborategiak jatorrizko egiaztapen markarik daukan egiaztatzen dueneko data jasoko da. Data horretatik aurrera hasiko da kontatzen kontagailuaren bizitza Araudi honetan aurreikusitako ondorioetarako.

Abonatutako pertsonaren betebeharrak izango dira kontagailua edo neurgailua eta urrutitik irakurtzeko modulua edo ekipoa zaintzea eta egoera onean edukitzea eta mantentzea, baita kontagailuen zigiluei eta etiketei dagokionez ere. Obligazio hau ez betetzetik erator daitekeen erantzukizuna horniketaren titular gisa ageri den pertsona abonatuarena izango da.

44. artikulua. Kontagailuen aldiaren berriztapena.

Berriztapenaren helburua da kontsumoen edukiera, onartutako tolerantzien barne, bermatzea eta parkea osatzen duten kontagailuak funtzionamendu egoera onean edukitzea.

Helburu hau betetzeko, ur hotzeko kontagailuek modeloaren onarpenerako eta jatorrizko egiaztapenerako kontrol metrologikoa pasa beharko dute; eta kontrol hau, ekainaren 10eko 597/1998 Errege Dekretuan, CEE Kontrol Metrologikoa onartzen duenean, edo, kasua balitz, Estatuko Administrazioak egiten duen kontrol metrologikoa zehazten duen irailaren 11ko 1.616/1985 Errege Dekretuan eta arau hauek garatzen dituzten erregelamenduetan xedatzen direnaren arabera egin beharko da.

Ezaugarri metrologiko, teknologiko, inskripzio, marka eta jatorrizko egiaztapenari dagokionean aipatutako araudian ezarritakoari lotuko zaio.

Kontagailuen bizitza erabilgarriaren epea instalatu zenetik 17 urtetakoa izango da, epe hau igaro ondoren aldatu egin beharko delarik derrigorrez.

45. artikulua. Laborategi ofizialak.

Laborategi ofizialak dira Eusko Jaurlaritzak, ur horniketan erabiltzen diren kontagailuen eta neurgailuen probaketa, egiaztapen eta kontrolerako instalatuta dituenak.

46. artikulua. Laborategi baimenduak.

Laborategi ofizial horietatik aparte bestelako laborategiak ere ireki ahal izango dira helburu eta ondorio berdinekin; baina beti ere, dagokion Administrazioak emandako baimena izan beharko dute. Era berean, Administrazio hauek baimenak emateko eta aipatutako laborategien funtzionamendua zuzenduko dituzten arauak emango dituzte.

47. artikulua. Kontagailuen desmuntatzea.

Kontagailuaren edo neurgailuaren konexioa eta deskonexioa Udalak edo baimendutako pertsona batek egin beharko du, instalazioaren zigilaketa egin beharko duelarik. Era berean, berau izango da ustiapena dela-eta, zigilaketa kentzeko baimena izango duen bakarra.

Kontagailuak edo neurgailuak desmuntatu ahal izango dira ondorengo arrazoi hauek ematen direnean:

Industria, Merkataritza eta Turismo Ordezkaritzaren Ebazpenak horrela erabakitzen duenean.

Horniketa kontratua iraungitzen denean.

Neurgailuan matxurarik izanez gero.

Aldian aldiko berrikuspenen ondorioz, beti ere Araudi honetan ezartzen denaren arabera.

Kontsumoen erregimenean izan daitezkeen aldaketengatik, hau da, instalatutako aparailuaren gaitasun teorikoa, goitik zein behetik, gainditzen denean.

Udalaren iritziz, kontagailuaren edo neurgailuaren funtzionamendua zuzena ez dela erakusten duten azterna garbiak daudenean. Kasu honetan, abonaturako pertsonari jakinarazi ondoren, desmuntatu egingo da eta haren ordez, bide ofizialari jarraiki egiaztatu den beste bat jarriko da. Eta, bide batez, aurrekoaren ordez instalatutako aparailuak erregistratzen dituen kontsumoak izango dira likidaziorako erabiliko direnak.

Udalak baimendurik, kontagailuak maneiatu eta zigiluak jarri zein ken ditzaketen pertsonak, Gipuzkoako Industria, Merkataritza eta Turismo Lurralde Ordezkaritzak luzatutako instalatzaile baimena beharko dute eta, era berean, indarrean dagoen Zurgin Instalatzaile Karnetaren jabe diren langileak beharko ditu.

•Kontagailuak aldatzeko prozedurak arrazoiaren arabera.

1.Aldaketa matxuragatik.

Udalak kontagailu bat matxuratuta dagoela somatzen duenean, aldatu egingo da Hernaniko Udalaren jabetzako bada eta, bestela, abonaturako pertsonari jakinaraziko zaio berak, bere kontura, gehineko 30 eguneko eparen barruan, konpon edo alda dezan.

Epe hori betetzen denean eta kontagailua aldatu gabe badago, Udalak aldatuko du, eta jabeak aldaketa gastuak bere gain hartuko ditu.

— Kontagailuaren jabeak matxuratutako kontagailua konpontzea erabakiko balu honako pauso hauek eman beharko ditu: lehenik, dagoen kontagailua

desmuntatuko da, ondoren, behin behineko kontagailu bat jarriko, gero, matxuratutako kontagailua konpondu eta egiaztatu beharko da eta, azkenik, behin behineko kontagailua desmuntatu ondoren, konpondutakoa jarriko da edo berri bat, egiaztapen probak gaindituko ez balitu.

Konpondutako kontagailuak egiaztapen probak gaindituko balitu, Udalak kontagailu berdina jarriko du, eta igorriko duen fakturan kontagailuaren bi desmuntaia/muntaia lan, konponketa eta egiaztapenaren kontzeptuak jasoko ditu.

Konpondutako kontagailuak egiaztapena gaindituko ez balu, ordea, Udalak kontagailu berria jarriko du, eta igorriko duen fakturan bi desmuntaia/muntaia lan, konponketa, egiaztapena eta kontagailu berriaren kontzeptuak jasoko ditu.

— Jabeak, indarrean dauden prezioak kontuan izanik, kontagailua ordezkatzeari hobe baderitzo, egin beharreko lana izango da kontagailu zaharra desmuntatzea eta ordezkatzeko duena instalatzea.

Kasu honetan Hernaniko Udalak igorriko duen fakturan, kontagailuaren desmuntaia/muntaia lana eta kontagailu berriaren kontzeptuak jasoko dira.

2. Aldian aldiko berrikuspenaren ondorioz aldatu behar direnean, Udalak egingo du eta aldaketa gastuak bere gain hartuko ditu.

Udalaren jabetzako kontagailuak instalatu eta 10 urte igaro ondoren aldatuko dira

48. artikulua. Kokaeraren aldaketa.

Kontagailuak edo neurgailuak kokatuko diren oinarrizko instalazioa instalatzaile baimendu batek egin behar du, eta higiezinaren titularraren kontura eta kargura egingo da; beti ere, arauz ezarritako baldintzak betetzen dituen kokagune batetan egin beharko delarik.

Kontagailuaren edo neurgailuaren kokapenean edozein aldaketa egiteko, horniketa atxikituta duen esparruaren edo jabetzaren barne, aldaketa egitea bultzatu duen aldearen kargura izango da, beti. Alabaina, abonatuak pertsonaren kargura izango dira, ondoren zehazten diren arrazoiengatik egiten diren kontagailuen kokaguneen aldaketak:

a) Kontagailuaren instalazioa egin eta gerora, abonatuak pertsonak egiten dituen erreforma obregatik eratorri eta irakurketa, berrikuspena edo aldaketa eragozten denean.

b) Kontagailuaren instalazioak Araudi honetan jasotzen diren betebeharrei erantzuten ez dionean eta horniketaren titularitatean aldaketarik dagoenean.

49. artikulua. Kontagailua maneiatzeari.

Abonatutako pertsonak edo erabiltzaileak ezingo du inoiz maneiatu kontagailua edo neurgailua, ez eta desbideraketak eta hartuneak egin aparailuaren aurretik, Udalaren baimen espresik gabe.

50. artikulua. Jakinarazpena abonatutako pertsonari.

Udalak aldeaz aurretik jakinarazi beharko dio abonatutako pertsonari, neurgailuen konexioa edo deskonexioa egin behar denean.

Udalak abonatutako pertsonari idatziz jakinarazi beharko dio neurgailuaren mota eta fabrika-zenbakia eta hasierako irakurketa.

51. artikulua. Egiaztapenagatiko likidazioa.

Neurgailuetan egin beharreko edonolako probak Udalak egoki irizten duen guztietan edo abonatutako pertsonak berak eskatzen duen bakoitzean egin beharko dira. Alabaina, proba hori abonatutako pertsonak eskatuta egingo balitz, eta neurgailua funtzionamendu egoera onean dagoela egiaztatzen bada, zerbitzu honengatik sortutako gastuak eskatzailearen kontura ordainduko dira.

Neurgailua funtzionamendu egoera onean dagoela iritziko da, neurketaren erroreak, izango balira, indarrean dagoen araudiak onartzen dituen tarteen barne badaude.

Neurgailuaren egiaztapenaren ondorioz funtzionamendu okerra egiaztatuko balitz, Udalak dagokion likidazioa egingo du.

Egiaztapenaren ondorioz kontagailuak baimendutako errore positibo gehienekotik gora funtzionatzen duela egiaztatuko balitz, itzuli beharreko kopurua zehazteari ekingo zaio; beti ere, kontsumo erreala kontuan izanik eta likidazioa atzeratu behar den hilabete horietan indarrean zeuden tarifen arabera.

Aurreko pasartean zehazten den denbora, kontagailua instalatu zen garaitik aurrera edo egin zen azkeneko egiaztapenaren datatik aurrera, markaketan errorea egiaztatu den egunera bitarte igarotako denbora izango da. Eta inoiz ez da **sei hilabetetik** gorakoa izango.

Kontagailuak emari desberdinekin oker funtzionatzen duela egiaztatzen bada, Udalak itzuli beharreko kopuruaren likidazioa, hala balegokio, aurreko pasartean finkatutako denbora horretara luzatuz egingo da; eta denbora horretan, kontagailu berria jarri eta hurrengo laurogeita hamar egunetan izandako kontsumo bera izan dela iritziko da.

Egiaztapen prozesuak irauten duen bitartean aparailu bat iruzur egiteko xedez maneiatu dela egiaztatuko balitz, egiaztatzaileak dagokion akta, Araudi honetako 87 artikuluan ezartzen diren ondorioetarako, jasoko du.

52. artikulua. Aldaketa.

Konponketarik behar duelako, aldiko berrikuntza eta/edo egiaztapenaren ondorioz, kontagailu edo neurgailu bat instalaziotik kendu behar denean eta berria berehala jarri ezin denean, haren ordeztan behin behineko kontagailu edo neurgailu bat, egiaztapen probak pasa dituen, jarriko da eta bera izango da kontsumoa kontrolatuko duena.

Instalatzeko den kontagailu edo neurgailu hau, beti, Udalaren jabetzakoa izango da. Alabaina, zaharraren ordeztan jartzen den kontagailua abonatuaren pertsonaren jabetzakoa den kasuetan, eta konponketaren, aldiko berrikuntzaren eta/edo egiaztapenaren ondoren erabilgarria dela irizten bada eta abonatuaren pertsonak bere instalazioan erabiltzen jarraitu nahi badu, berriro instalatuko dio Udalak eta abonatuaren pertsonaren kargura izango dira gastuak; eta bere baliagarritasun aldia edo bizitza amaitu bitartean egongo da bertan.

53. artikulua. Gastuak.

Oro har, kontagailuen edo neurgailuetan egiten diren egiaztapenen edo konponketen ondorioz sortzen diren gastuak aparailu horien jabearen kontura ordainduko dira.

Egiaztapena alde baten eskaerari erantzunez egiten denean, haren ondorioz kontzeptu guztietan sortzen diren gastuak eskatzailearen kontura ordainduko dira, beti ere, aparailuaren funtzionamendu okerra erakusten ez duen bitartean eta errorea beste aldearen aldekoa denean.

VIII. ATALBURUA: URAREN HORNIKETARAKO BALDINTZAK

54. artikulua. Horniketaren izaera.

Urari ematen zaion erabileraren arabera, horniketaren izaera honako hauetan sailkatuko da:

a) Etxeko erabilerako kontsumoa, lurzoru urbanoan eta landa lurzoruan.

Etxeko erabilerako kontsumo bereziak.

Etxeko erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan eta kontagailu orokor batek neurturikoak.

b) Etxeko erabilerarik ez duen kontsumoa.

Merkataritza jarduerak eta garaje erabilerako kontsumoak

Ostalaritza, zerbitzu, zundaketa eta industria jarduerako erabilerako kontsumoak.

Obrak egiteko kontsumoak.

Finka partikularretako ureztaketa eta igerileku erabilerako kontsumoak.

Udalaren eta bere erakunde autonomoen erabilerako kontsumoak.

Erabilerako kontsumoak irakaskuntza arautuko ikastetxeetan, ospitaleetan, hirugarren adinekoentzako egoitzetan, kuarteletan eta bestelako antzeko ostatu kolektiboetan.

Suteei aurre egiteko kontsumoa.

Etxeko erabilerako kontsumo bereizia izango da lehen erabilerako Lizentzia behar eta egoitza erabilera duten etxebizitzetan edo eremuetan izaten den kontsumoa.

Aurreko pasartean aipatutako etxebizitza edo esparru batean egoitza erabilera eta jarduera bat aldi berean burutzen direnean, horniketa osoa jardueraren erabilerarako dela iritziko da.

Etxeko erabilerako kontsumoak bizilagunen komunitateetan eta kontagailu orokor batek neurturikotzat iritziko dira, lehen erabilerako Lizentzia behar eta egoitza erabilera duten etxebizitzetan edo eremuetan izaten den kontsumoak, beti ere, abonatutako pertsona etxebizitza bat baino gehiagoko finkaren jabea edo Jabe-kide-Elkargoa denean abonatutakoa.

Merkataritza-erabilerako horniketatzat joko dira negozio-lokaletako horniketak, baldin eta lokal horiek jarduteko edo irekitzeko lizentziaren jabeak badira eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman beharrekoak badira jardun ahal izateko. Merkataritza-erabilerako horniketatzat joko dira, halaber, herri-administrazioei eta horien erakundeei egiten zaizkien horniketak, duten erabileragatik bestelako erabileretan sartzen ez badira, eta beren jarduerak merkataritza-lokaletan edo etxebizitzak izateko diren lokaletan — ordenamenduak lokal horietan jarduerak garatzeko baimena ematen badu— garatu edo ez. Izaera hori emango zaizkie, berebat, garaje partikular, trasteleku eta oro har inolako jarduerarik ez duten lokalei ere.

Ostalaritza-, zerbitzu- eta industria-erabilerako horniketatzat joko dira, ostalaritza-, zerbitzu- eta industria-lokalak hornitzeko direnak, baldin eta jarduera horretarako jarduteko edo irekitzeko lizentziaren jabeak badira, eta jardun ahal izateko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman behar bada.

Obrak burutzeko horniketaren izaera izango dute eraikuntza edo erreforma beharrei eta zunaketei eta, azken batean, edozein obra burutzeko behar den horniketari erantzuteko izango diren kontsumoek. Horniketa hauek baimenduko dira, hala ere, denbora jakin baterako eta prekarioan, beti ere herritarren behar orokorren baldintzapean.

Alabaina, eraikuntza amaituta egon arren, dagozkien lizentziak (lehen erabilerakoak, jarduerakoak edo irekitzekoak) oraindik lortu ez badituzte, eraikuntzaren obrarako horniketatzat joko dira harik eta dagozkien lizentzia horiek lortu arte.

Finka partikularretan ureztaketa eta igerilekuen erabilerako horniketaren izaera izango dute erabilera hori edozein finka partikularrean ematen denean, bertan etxebizitza bat edo multzorik, industriarik eta abarrik dagoen edo ez begiratu gabe.

Suteen aurkako horniketaren izaera izango dute, helburu horrekin kontratatzen diren ur horniketak.

Aurrez aipatutako horniketa mota horietako edozein horniketa berezia baimendu ahal izango da, noizbehinkako edo behin-behineko izaera duen ezein beharri erantzun behar zaionean.

Nolanahi ere, horniketa hauek Udalak eskatzen den puntu horretan dauzkan instalazioek ematen dituzten aukeren eta hiritarren behar orokorren menpe egongo dira. Nolanahi ere, emakida prekarioan eta denbora jakinerako izango da.

55. artikulua. Horniketa desberdinak.

Nolanahi ere, eraikin bakoitzean egon daitezkeen merkataritza edo negozio lokalek beren horniketa independentea izan beharko dute.

56. artikulua. Suteen aurkako zerbitzuaren horniketa.

Eraikinen barneko suteen aurkako instalazioek, eraikinen xedea edo erabilera edozein izanik ere, erabilera hori bakarrik izango duen ur horniketa berezia izan behar dute. Eta ondorio guztietarako, Araudi honetan horniketa arrunteko instalazioetarako agintzen diren baldintzak bete beharko dituzte, ondorengo irizpideen arabera:

1.Instalazio berezituak izatea: suteen aurkako instalazioak beste edozein erabilera duten instalazioetatik berezituak izango dira eta berauetatik ezingo da beste erabilerarik izan dezakeen desbideraketarik egin.

Era berean, eta Udalaren baimen espresik gabe, debekaturik dago urik hartzea instalazio hauetako edozein elementutik, suteen kasuan izan ezik.

Suteen aurkako araudi bereziak abonaturako pertsonaren jabetzako barneko instalazioan Udalak bermatzen ez duen presiorik exijitzen duenean, abonaturako pertsonaren erantzukizuna izango da, lehen aipatutako araudi berezi hori betetzera eramango duen presioa handitzeko gailuak jartzea eta haiek artapen lana egitea.

Suteen aurkako hartunen bidez kontsumitutako ura fakturatu egingo da. Eta horretarako kontagailu bat jarri beharko da, bestelako edozein horniketetarako jartzen direnen ezaugarri berekoak.

2.Horniketaren kontratazioa: banaketako sare publikoari suteen aurkako horniketarako hartune bat lotzeko, aldeztu aurretik, Udalaren eta abonaturako pertsonaren arteko horniketa kontratua sinatu beharko da.

Kontratu hauek horniketa arruntetarako kontratuen izapideketa eta izaera bera izango dute; eta horrenbestez, arauz ezarritako manamendu berak bete beharko dituzte.

IX. ATALBURUA: HORNIKETAREN EMAKIDA ETA KONTRATAZIOA

57. artikulua. Horniketa eskaera.

Horniketa kontratatu aurretik, interesaturik dagoen pertsonak horniketa eskaera egiteko inprimakia aurkeztu beharko du Udaleko erregistroan.

Eskaera orrian eskatzailearen izena, eskatutako urari eman nahi zaion erabilera, finkaren xedea eta, bide batez, horniketaren ezaugarriak eta baldintzak egokiro definitzeko eta zerbitzuaren ordainetan dagozkion tarifak aplikatzeko, beharrezko izan daitezkeen gainontzeko ingurumarien berri eman behar du. Inprimaki horretan jakinarazi beharko da jakinarazpenak igortzeko helbidea, beti ere, hornidura izango duen gunea ez den kasuetan.

Aurrez arautu eta horniketaren inprimakian agerrarazten diren datu guztiak zuzenak izatea eskatzailearen erantzukizuna izango da eta aipatutako horniketa arautzeko oinarri gisa erabiliko dira.

Horniketa eskaerarekin batera, interesaturik dagoen pertsonak ondorengo dokumentazioa erantsiko du:

Instalatzailearen buletina, Industria, Merkataritza eta Turismo Ordezkaritzak ikus- onetsia.

Jabetza eskritura eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ordain-agiria.

— Zorraren eraketa-dokumentua, aipameneko horniketako instalazioengatik zor hori ezarri beharrekotzat jotzen denean.

— Horniketa etxebizitzarako bada, lehen okupazioko lizentzia ere ekarri behar da.

— Horniketa merkataritza-, zerbitzu-, garaje- edo industria-lokaletarako bada, honako dokumentuak ekarri behar dira:

- Irekitzeko lizentzia
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman izanaren egiaztagiria

58. artikulua. Kontratazioa.

Horniketa eskaera egin ondoren, Udalak, hamabost lanegunetako gehienezko epearen barne, horniketa gauzatzeko baldintza tekniko eta ekonomikoen gaineko azterketa jakinaraziko dio eskatzaileari idatziz. Sarearekiko lotua egiteko eskubidea emateagatik ordaindu beharreko tasaren zenbatekoa ere jakinaraziko zaio.

Eskatzaileak, behin baldintza tekniko eta ekonomikoen jakinarazpena jaso ondoren, hogeita hamar egunetako epea izango du kontratua sinatzeko. Epe hori kontratua sinatu gabe igaroko balitz, eskaerak bere indarra galduko du Udalarentzako inolako obligaziorik sortu gabe.

Nolanahi ere, horniketa kontratu edo poliza horrek ez du indarririk izango, eskatzaileak, Araudi honetan xedatutakoarekin bat, konpondu edo bete behar dituen obligazio ekonomiko, tekniko eta administratiboak betetzen ez dituen bitartean.

Behin eskatzaileak eskubideak ordaindu eta dagozkion betebeharrak bete ondoren, Hernaniko Udalak instalazioa eta horniketa martxan jartzeko obligazioa dauka, beti ere, kontratazioa eta ordainketa egindako datatik hamabost laneguneko epearen barne.

Nolanahi ere, lanak burutzeko behar diren baimenak lortzean atzerapenak izango balira, aurreko pasartean finkatutako epea etetzea ekarriko du. Eta atzerapen horren berri emango dio idatziz Hernaniko Udalak eskatzaileari.

59. artikulua. Kontratua ukatzeko arrazoiak.

Uraren horniketaren emakidarako ahalmena, indarrean dauden arauen arabera, Udalari dagokio.

Udalak horniketaren kontratazioa uka dezake, ondorengo kasu hauetan:

1.Horniketa eskatzen duen pertsonak edo entitateak, uraren horniketaren kontratazioari buruz indarrean dauden xedapenen arabera eta baimendutako eredu batean luzatutako kontratua sinatzeari uko egiten dionean, edo lege ezarritako dokumentazioa aurkezten ez duenean edo, azkenik, dagozkion ordainketak egiten ez dituzenean.

2.Eskatzaile horren instalazioan, eta Udalaren iritziz, behin egiaztatu ondoren, indarrean dagoen araudiak izaera orokorrez ezartzen dituen manamenduak betetzen ez direnean. Kasu honetan, Hernaniko Udalak aurkitutako hutsuneak adieraziko dizkio eskatzaileari zuzen ditzan.

3.Uraren horniketarako hartunerik ez duenean edo isurketen eta euri uren hustuketarako

4.Horniketaren eskatzaileak, aurrez, uraren horniketaren zenbatekoa ordaintzeari utzi diola egiaztatzen denean, nahiz eta horniketarako eskubidea edukitzeko betekizunak bete, Udalari uraren zerbitzuagatik diru kantitatearen bat zor badiote,

horniketa hori ukatuko zaie zenbateko hori kitatu arte, eta gainera horrela jardun beharrak eragin ditzakeen errekaratu eta gastuei erantzun beharko die.

5.Horniketa eskatzen den lokalerako, aurretik eta indarrean dagoen beste horniketa kontratu bat dagoenean.

6.Horniketaren eskatzaileak legozkiokeen hirugarren pertsonen baimenik lortu dituela zehaztasunez egiaztatzen ez duenean, edo/eta, kasua balitz, eskatutako zerbitzuak emateko gauzatu beharreko obrak eta instalazioak egiteko beharrezko zortasunak, erregistroan inskribaturik, ezarri ez dituenen.

60. artikulua. Horniketa kontratua.

Udalaren eta abonatuak pertsonaren arteko erlazioa horniketa kontratuak edo ordainketa polizak arautuko dute.

Horniketa kontratua izango da, zerbitzuaren emakida legeztatuko duen agiri bakarra eta, Araudi honetan ezarritako baldintzaz gainera, Hernaniko Udalaren eta abonatuak pertsonaren arteko harremanak arautuko dira. Une honetan zorpetzen dira udal sarearekiko lotura eskubideak. Eskubide horiek tasa arautzen duen ordenantza fiskalean kuantifikatuko dira.

Aipatutako kontratu hori idatziz eta ale bikoitzean jasoko da; eta ale bat, behar bezala beterik, abonatuak pertsonari emango zaio, bertan, gutxienez, ondorengo datu hauek jaso beharko direlarik:

a)Entitate hornitzailearen identifikazioa:

Hernaniko Udala

b)Abonatuaren identifikazioa:

Izen-deiturak edo egoitza soziala.

NAN edo IFK

Helbidea (hornitutako higiezinaren helbide bera ez bada).

Helbideratze agindua

c) Hornikuntzaren datuak

Jarduera (Jarduera Ekonomikoen gaineko zergaren epigrafea)

Jarduera/irekiera lizentziaren titularra eta eguna

Aurreko jarduera

d)Hornitutako finkaren datuak:

Helbidea.

Etxebizitza, letra, eskailera.

Etxebizitza kopurua, guztira.

Ondasun Higiezinaren gaineko zergaren errezibo zk.

e)Aurreko instalazioaren ezaugarriak.

Baimendutako instalatzailearen buletinaren erreferentzia.

f)Horniketaren ezaugarriak:

Tarifa.

Hartunearen diametroa.

Kontratututako emaria, eskariaren arabera.

g)Neurgailua:

Mota.

Fabrikazio zenbakia.

Kalibrea, milimetrotan emana.

h)Baldintza ekonomikoak.

Hartune eskubideak.

h) Baldintza bereziak

Kontagailuen kokapena

Kontratuaren argibideak

i)Kontratua sinatzen den tokia eta eguna.

j)Aldeen sinadurak.

61. artikulua. Sinatu beharreko kontratuak.

Kontratuak horniketa mota bakoitzarentzako ezarriko dira eta, horrenbestez, tarifa edo baldintza bereziak aplikatu behar diren kasu haietarako, kontratu desberdinak sinatu beharko dira derrigorrez.

62. artikulua. Kontratuaren sinatzaileak.

Horniketa kontratua Udalak eta hornitu behar den etxebizitzaren, lokalaren edo industriaren erabilera eskubidearen titularrak, edo hura ordezkatzeko duen pertsonak sinatuko dute.

63. artikulua. Abonatuak pertsonen toki-aldaketa eta aldaketa.

Etkez aldatzean eta lokala kontratua sinatu zuen beste pertsona batek okupatzeak beste kontratu berri bat sinatzea dakar berez, edo/eta kasua balitz, aurrekoaren subrogazioa egitea; baina beti ere, Araudi honetan ezarritako betebeharrak betetzen badira.

Jite orokorrean, abonatuak ezingo dizkio bere eskubideak beste inori utzi, ez eta Zerbitzuarekin daukan erantzukizunei itzuri ere. Alabaina, Zerbitzuarekin daukan betebeharrak ekonomikoak eguneratuta badauzka, bere poliza lokal hori hartuko duen beste norbaiti aldatu ahal izango dio, betiere kontratuko baldintza berberak gordez.

Abonatuak idatziz jakinaraziko dio Udalari egindako aldaketa.

Zerbitzuak, jakinarazpena jaso eta abonatu berriak betebeharrak formal eta ekonomikoak bete ondoren, kontratu berria egingo du abonatu berriaren izenean. Abonatu berriak zerbitzu horiek kontratatzeke behar diren dokumentuak eta baimenak ekarri behar ditu; era berean, Udalean jarduera ekonomikoaren titulartasuna aldatzeko tramiteak egiten ari dela egiaztatzeke dokumentuak ere ekarri behar ditu.

64. artikulua. Subrogazioa.

Ordainketa polizaren titularra hilko balitz, polizaren eskubideak eta betebeharren subrogazioa egin ahal izango da, beti ere, heriotzaren datoren aurretik, gutxienez bi urteko epean, ohiko etxebizitzan elkarrekin bizi zitezkeen bere ezkontide, izatezko bikote, ondorengo, seme-alabatzeko oso, aurreko eta anai-arreben artean. Nolanahi ere, elkarrekin bi urtetan bizitzeko betebeharrak hori ez da betetzea derrigorrezkoa izango, zenduaren guraso-agintepean egon zitezkeenentzat ez eta ezkontidearentzat ere.

Era berean, beste oinordeko legatidun batengan ere subroga daitezke eskubideak eta betebeharrak, beti ere hornidura egiten den etxebizitzaren edo lokalaren jabetza edo eskubidea beretzat hartzen badu.

Entitate juridikoen kasuan, subrogatzen duenak edo eskubideetan eta betebeharratan hura ordezkatzeko duenak, gauza bera egin dezake ordainketa polizari dagokionean, baina, Hernaniko Udalen beharrezko liratekeen baimen administratibo guztiak aurkeztearen baldintzapean.

Subrogaziorako epea, gertaera izan eta hamabi hilabetekoa izango da.

65. artikulua. Kontratuaren xedea eta irismena.

Horniketa kontratuak etxebizitza, lokal, industria edo unitate bereizitua osatzen duen obra bakoitzeko sinatuko dira.

Horniketa bakoitza eman zeneko helburuei atxikita geratuko da; beraz, debekatuta dago beste helbururekin erabiltzea edo bere irismena aldatzea. Horrelakorik egin nahiko balitz, eskaera berri bat egin eta, kasua balitz, legokiokeen kontratu berria sinatu beharko da.

66. artikulua. Gordailutzak

Iraupen labur edo aldi bateko zerbitzuetan, betiere hiru hiletik beherakoetan, behin-behineko zenbateko bat gordailutzeko eskatuko da kontratua egiterakoan, eta hori kontagailuaren kalibre eta aurreikusitako erabilera-orduen arabera kalkulaturako da aurretiaz. Gerora egingo da behin betiko likidazioa, benetako kontsumoaren arabera..

67. artikulua. Kontratuaren iraupena.

Horniketa kontratuaren iraupena behin betikoa izango da, bestelako eperik finkatzen duen erabaki espresik izan ezean. Alabaina, abonaturako pertsonak edozein garaitan erabaki dezake kontratuaren iraungipena, nahiz eta horretarako, erabakiaren berri Udalari eman beharko dion hilabeteko aurrerapenarekin.

Obretarako horniketa, eremu mugikorretako aldiak aldiko ikuskizunetarako eta, oro har, noizbehinkako jardueretarako denean, kontratuan espreski zehaztuko den denbora jakin horretarako kontratatuko da.

Denbora jakinerako kontratuak luzatu ahal izango dira horniketaren titularrak eskatuz gero, baina arrazoi zurigarriak izanik Udalak baimen espresua ematen badu.

68. artikulua. Horniketa etetzeko arrazoiak.

Udalak, indarrean dagoen legediak babes diezaizkiokeen izaera zibil edo administratiboko akzioei ekitearen kalterik gabe, abonaturako pertsonen horniketa eten ahal izango du ondorengo kasu hauetan:

a) Ur-horniketa eta saneamenduari dagokion tasaren ondoz ondoko hiru ordainagiri ordaintzen ez direnean, edo Udalak emandako edozein zerbitzuri dagozkion zenbatekoen zortzapen-datatik kontatzen hasita, abonatuak hiru hileko epearen barruan ordaintzen ez dituenean.

b) Bere izenean horniketa izateko tartean kontratu idatzirik ez dagoenean eta Udalaren errekerimenduari jaramonik egin gabe kontratua sinatzeari uko egiten dionean.

c) Iruzurrik egin edo iruzurrean berrerori dela egiaztatu ondoren egiten zaion likidaziotik eratorritako kopuruak, jakinarazpenaren datatik aurrera hurrengo hamabost lanegunetan, ordaintzen ez direnean.

d) Abonatutako pertsonak hornitzen zaion urari, kontratu duen helburu eta erabilera desberdina ematen dion kasu guztietan.

e) Abonatutako pertsonak uraren horniketarako bere instalazioan, eta horniketa kontratuan jasotako beste finka, lokal edo etxebizitzetarako desbideraketak egiten eta egitea uzten duenean.

f) Udaleko pertsonalak horniketako sareetan kontraturik gabeko ur kontsumoak egiaztatzen dituenean, hau da, ezkutuan egindako hartuneak aurkitzen dituenean. Kasu horietan, Udalak berehala eten ahal izango du ura aipatutako desbideraketetan, eta Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzari horren berri emango dio idatziz.

g) Abonatutako pertsonak kontratatutako horniketa kontrolatzen den lokalean, Udalak baimendutako eta dagokion nortasun dokumentazioa erakusten duen pertsonalari, laneko orduetan edo kanpoko harremanak izateko ordutegi normalean, instalazioak ikuskatzera sartzen uzten ez dionean. Kasu honetan, Udalak gertakarien akta jaso beharko du.

h) Abonatutako pertsonak, Entitatearekin sinatuta daukan kontratuko erabakiak edo zerbitzua erabiltzeko baldintza orokorrak, edozein gai delarik ere, betetzen ez dituenean.

i) Urari ematen zaion erabileragatik edo barneko instalazioen egiturarengatik banaketa sareko uraren edangarritasunean eragin kaltegarriak sor daitezkeenean. Etenaldiak abonatuak pertsonen egoera horiek ez daitezkeen gertatu, neurri egokiak hartzen dituzten bitartean iraungo du. Kasu horretan Udalak berehala eten dezake horniketa, eta Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzari horren berri emango dio idatziz.

j) Abonatutako pertsonak erregistroa edo kontagailuaren kutxeta eta are barneko instalazioa, aldatzeari uko egiten dionean; beti ere, Araudi honek baimentzen dituen arrazoiengatik kontagailua aldatu behar den kasuetan.

k) Abonatutako pertsonak beste jatorriko urak nahasten dituenean Udalak ur hornidura berehala eten ahal izango du eta Industria, Merkataritza eta Turismoko Lurralde Ordezkaritzari horren berri emango dio idatziz.

l) Kontagailuaren irakurketa egiteko prozedura arruntari jarraiki hamabi hilabeteko epean ezinezkoa gertatzen denean, abonatuak pertsonari egoz dakizkiokeen arrazoiengatik. Kasu honetan Hernaniko Udalak eten ahal izango du horniketa izaera iragankorrez eta, abonatuak pertsonak, bere kargura eta kontura, neurgailuen instalazioan, irakurketa egiteko sarbiderako oztopoak kenduz, aldaketak egiten ez dituen bitartean.

m) Abonatutako pertsonaren utzikeriagatik; hau da, Udalak, idatziz, bere instalazioetan dauden matxurak konpontzeko errekerimendua egin arren, zazpi egunetako epea igaroko balitz matxura konpondu gabe.

69. artikulua. Horniketaren etenaldirako prozedura.

Araudi honetan aurreikusitako berehalako horniketa etenaldien kasuetan izan ezik, Udalak hartutako erabakiaren jakinarazpena igorriko dio abonaturako pertsonari. Eta jakinarazpena jaso eta hurrengo hamar lanegunetan akatsak bere hartan badirau, horniketa etengo da.

Udalak, berehalako etenaldiko kasuetan salbu, ezingo du uraren horniketa eten jaiegunetan edo, edozein arrazoi tarteko, jendearen harrerarako zerbitzu administratibo eta teknikorik ez dagoen egunetan, -beti ere zerbitzua berrezartzeko izapideketa osoa egin ahal izateko-, ez eta mota horretako egoeraren bat sortuko den egunen bezperatan.

Zerbitzua egun berean berrezarriko da edo, ezinezkoa balitz, horniketaren etenaldirako izan ziren hutsegiteak bere onera ekartzen diren hurrengo lanegunetan.

Horniketaren etenaldirako jakinarazpenean, gutxienez, honako puntu hauek jasoko dira:

- Abonaturako pertsonaren izen-deiturak eta helbidea.
- Hornitutako finkaren identifikazioa
- Etenaldirako arrazoi zehatza.
- Etenaldia eragin zuten hutsegiteak konpondu ahal izateko Hernaniko Udalako bulegoen helbidea, telefonoa eta ordutegia.

Horniketaren birkonexioa Udalak egingo du eta abonaturako pertsonari, lan horregatik eta une horretan instalaturako kalibre berdinerako, indarrean dagoen kontratazio kuotaren zenbatekoaren kopuru baliokide eta gehienekoa kobratu ahal izango dio.

Etenaldiaren arrazoiak ordainketarik ez egitea bada eta etenaldiaren egunetik hiru hilabeteko epean abonaturako pertsonak ordaintzeko dauzkan ordainagiriak ordaintzen ez baditu, kontratua iraungitzat emango da, Udalak zorra ordaintzeko eta sor zekizkiokeen kalte eta galeren kalte-ordainak exijitzeko eskubidea erabiltzearen kalterik gabe.

70. artikulua. Horniketa kontratuaren iraungipena.

Uraren hornidurarako kontratua da, eta Araudi honetako 68. Artikuluan zehaztutako arrazoiengatik horniketa eteteko bideak erabiltzearen kalterik gabe, honako arrazoi hauengatik iraungi daitezke:

1. Abonaturako pertsonaren eskaeraz.
2. Entitate hornitzailearen erabakia tarteko, honako kasu hauetan:

a) Araudi honen 68 artikuluan araututako horniketa etenaldirako edozein arrazoi delarik, berean jarraitzea hiru hilabetetik gorako epean.

b) Horniketa kontratuan jasotzen diren epeak eta baldintzak betetzen direnean.

c) Zerbitzua kontratatzerakoan zeuden zerbitzu eta instalazioen erabilera aldatzen denean, bai eta, horniketa kontratatu zeneko finkaren eraispen, zabalpen edo erreformarik izaten denean.

Behin, aipatutako edozein arrazoiarengatik kontratua iraungitzen bada eta horniketa berriro izan nahi bada, bakar bakarrik, eskaera berri bat eginez, kontratu berri bat sinatuz eta legozkiokoen eskubideak ordainduz lortu ahal izango da.

X. ATALBURUA: HORNIKETAREN ERREGULARTASUNA

71. artikulua. Zerbitzuaren maiztasuna.

Ezinbesteko arrazoiak tarteko edo instalazio publikoetan izan daitekeen matxurarik salbu, Udalak, zerbitzuari etenaldirik gabe eusteko obligazioa dauka, beti ere, horniketa kontratuetan edo polizetan bestelakorik ezartzen ez den bitartean.

72. artikulua. Denbora jakinerako etendurak.

Udalak zerbitzuaren denbora jakinerako etendurak egin ahal izango ditu, bere kargura dauden instalazioen mantenimendu, konponketa edo hobekuntza lanak egiteko.

Aurreikusitako eta programatutako etenduretan, Udalak etetearen berri eman beharko die erabiltzaileei hogeita lau orduko aurrerapen minimoarekin eta, gutxienez, herrian zabalkunderik handiena duen komunikabide baten bidez. Alabaina, komunikabideen bidez egitea ezinezkoa izango balitzai, bere eskura dauden bestelako bideak erabiliko ditu etetea nahiko denborarekin iragartzeko eta haren berri jasoko dela bermatzeko moduan.

Udalaren kargura dauden instalazioetan izandako matxuren eraginez horniketa eten behar denean, halabeharrezko arrazoiak ez direnean tarteko eta bederatzi egunetatik gorako epean izango direnean, abonatutako pertsonak, Araudi honen 91. artikuluan zehazten den kuota finkoa edo zerbitzuko kuotaren zati proportzionala itzul dakion eskatzeko eskubidea izango du.

73. artikulua. Ur erresebak.

Sektore bakoitzaren arauketa berezian ezartzen denaren kalterik gabe, ura osasun publikorako edo pertsonen eta ondasunen segurtasunerako behar ezinbesteko eta etengabekoa den jarduera burutzen den lokal guztietan eta, bereziki, Ospitaleetan, gai suharkorren eta erregaien biltegietan eta merkataritza zentru handietan, erresebak ur biltegiak jarri beharko dira eta, gutxienez, estali behar diren behar minimoei hogeita lau orduetik gora erantzuteko adinako autonomia emango dizkien moduko biltegiak izango dira.

Era berean, produkzio prozesuan edo produktuen kontserbaziorako ura ezinbesteko elementu den industrietan ur erreserbak egokitu eta dimentsionatu egin beharko dira, beti ere, autohorniketa, gutxienez, hogeita lau ordutan bermatzeko moduan, zerbitzu desberdinetan edateko ur gisa erabili gabe.

74. artikulua. Murrizketak horniduran.

Lehortek, ur emariaren urritasunak edo trataerako zailtasunak horrela eskatzen duenean, Udalak murrizketak ezarri ahal izango ditu abonaturako pertsonen horniketa zerbitzuan.

Kasu honetan, Udalak aplikatu behar dituen neurriak, ahalik eta modurik argienean, abonaturako pertsoneri azaltzeko obligazioa dauka, bai eta, murrizketak hasiko diren daten berri emateko ere, eta horretarako komunikabideak erabiliko ditu. Komunikabideen bidez azaltzea ezinezkoa izango balitz, Entitateak abonaturako pertsona bakoitzari jakinarazi beharko dio gutun pertsonal baten bidez.

Horniketa eteteko arrazoia nahikoa ur emaririk ez izatea denean, erabiltzaileen beharrei erantzuteko, kontratatutako erabileraren modalitateari jarraituko zaio, eta horniketa ondoren finkatzen den ordenari jarraiki etengo da: Iparraldeko III. Plan Hidrologikoan edo, hala badagokio, Euskal Autonomi Erkidegoko Plan Hidrologikoan adierazitako aprobeitxamenduen lehentasunen alderantzizko ordenari jarriki.

1. Prekarioan egindako hornizketak.
2. Apainketa erabilerako hornizketak.
3. Jolas erabilerako eta kirol instalazioen hornizketak.
4. Industria, merkataritza eta zerbitzu erabilerako hornizketak.
5. Etxeko erabilerako hornizketak.

XI. ATALBURUA: IRAKURKETAK, KONTSUMOAK ETA FAKTURAZIOAK

75. artikulua. Irakurketaren maiztasuna.

Udalak irakurketarako sistema iraunkor eta aldizkako ezartzeko obligazioa dauka, beti ere, abonaturako pertsona bakoitzaren kontagailuaren irakurketa, ahal den neurrian, ziklo berdinetan egin dadin.

76. artikulua. Irakurketako ordutegia.

Hernaniko Udalak espresuki baimendutako pertsonalak irakurketa lanegunetan eta laneko edo kanpoko harremanetarako ordutegi normalean egingo du; nolana ere, langile hauek bere identifikazio agiriak izango dituzte.

Abonatutako pertsonak ezingo du, inoiz, irakurketa egiteko obligazioa ezarri Hernaniko Udalak horretarako erabakita daukan ordutegitik kanpo.

Behin behineko horniketarako baimena ematen den kasuetan eta horniketa neurgailu mugikorren bidez egiten denean, abonatuak dagokion kontratuan edo emakidan finkatzen diren toki edo lokaletan eta aipatutako agiri horretan bertan finkatzen diren egunetan, neurgailu mugikorrek aurkeztu beharko ditu irakurketa egin dadin.

77. artikulua . Abonatutako pertsonen egindako irakurketa.

Abonatutako pertsona bertan ez dagoelako irakurketa egitea ezinezkoa izango balitz, pertsonal arduradunak abonatuaren etxebizitzaren ate azpian edo postontzian txartel bat utziko du abonatuak irakurketaren datuak eman ahal izateko.

78. artikulua. Kontsumoaren zehaztapena.

Oro har, abonatuak pertsonak egiten duen kontsumoaren zehaztapena, fakturazioko jarraiko bi epeen artean izandako irakurketen diferentziaren arabera egingo da.

79. artikulua. Balioetsitako kontsumoak.

Benetan izandako kontsumoa zein den jakitea ezinezkoa bada, neurgailuan matxuraren bat dagoelako, irakurketa egin nahi izan zen momentuan abonatuaren pertsona ez zegoelako bertan edo Udalari egotz dakizkiokeen bestelako arrazoiengatik, kontsumoaren fakturazioa, denbora epe berean eta urteko sasoi berean izandako kontsumoaren arabera egingo da; alabaina, neurketa horiek eskura izango ez balira, aurreko zortzi hilabeteetan izandako kontsumoaren batez beste aritmetikoaren arabera likidatuko dira fakturak.

Aurreko pasartean aipatzen den batez bestekoa lortzeko datu historikorik ez dagoen kasu haietan, kontsumoak aurreko aldietan ezagutzen zaizkion kontsumoen batez bestekoa eginez zehaztuko dira. Hori ere ezinezkoa izango balitz, kontagailuaren kapazitate nominala eta hilean hogeita hamar orduko erabilera izango balu, izango litzatekeen kontsumoaren arabera fakturatuko da.

Modu honetan balioesten diren kontsumoek izaera irmoa izango dute kontagailuan matxurarik bada ere. Eta bestelako balizkoen kontura, non behin irakurketa erreala egin ondoren egoera normalizatuko baita, hala gehiegizko nola gutxienezko kasuan, ondorengo aldi bakoitzean egiten den irakurketaren arabera zehaztuko dira kontsumoak.

Kontsumoen balioespenari ere ekin ahal izango zaio, Udalan abonatuak pertsonak emandako neurgailuen datuak ikusirik, bertan irudikatzen diren kontsumoek, abonatuak pertsonak izan ohi duen kontsumo erregimenarekin bat ez datozenean.

Aurreko pasartean aipatzen diren kasuetan, Udalak, epe edo aldi horretako fakturazioa egiteko xedez, kontsumoen balioespena edo hurrengo aldira atzeratzea erabaki dezake, azkeneko aldi horretan bilduko direlarik bi aldi horietako kontsumoak.

80. artikulua. Fakturazioaren xedea eta maiztasuna.

Udalak XIII. Atalburuan jasotzen eta kasu bakoitzari egokitzen zaizkion kontzeptuak fakturatuko ditu, horniketa motaren eta une bakoitzean indarrean dauden tarifen arabera. Kontsumoak indarrean dagoen ordenantza fiskalak xedatzen duenaren arabera fakturatuko dira.

81. artikulua. Fakturen eta ordainagiriaren betebeharrak.

Hornidura eta saneamendu zerbitzuak jasotzetik abonaturako pertsonari egozten zaizkion zorrak jasotzen diren ordainagiritan, indarrean dagoen legediak une bakoitzean exijitzen dituen zehaztasunak jasoko dira eta, bide batez, prezioak, kontsumoak eta erabiltzailearentzako interesgarriak izan daitezkeen gainontzeko datuak jaso beharko dira modu argi eta ulergarrian.

82. artikulua. Informazioa ordainagiritan.

Fakturazio kontzeptuetan edo formetan aldaketa handiak edo garrantzitsuak izaten direnean, Udalak tarifak aplikatzeko moduari eta fakturazioan jasotzen diren kontzeptuak babesten dituzten eta indarrean dauden xedapenei buruzko informazioa emango die abonaturako pertsonari.

83. artikulua. Ordainketa epea.

Udalak, uztailaren 5eko Foru Arauko (Gipuzkoako tokiko ogasunak arautzen dituen) 14.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, egoki diren zerga-eroldak onartzerako joko du, eta horiek ordaintzeko epea urteko zerga-egutegian ezarritako izango da. Nolanahi ere, hori guztia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bilketa Araudian ezarritakoari lotuta egingo da.

84. artikulua. Fakturen edo ordainagiriaren ordainketa modua.

Udalak fakturatutako zenbatekoa ondorengo sistemen bidez ordaindu ahal izango du abonaturako pertsonari:

- Zerbitzuak gaitutako Banketxe edo Kutxan dirutan ordainduz.
- Abonaturako pertsonak adierazten duen kontuan helbideratuz.

85. artikulua. Aldez aurretik erabakitako kontsumoak.

Bere izaera behin behinekoa delako, edo izaera prekarioan eman delako, edo bestelako salbuespenagatik, bolumen edo emari finko baten, edo erabilerako denbora unitateko kopuru zehatz baten horniketa kontratatzen den kasuetan,

ezingo zaizkie hitzartutako kontsumoei bestelakoak egotzi, iruzurrezko erabilera edo ezarritako kontratua betetzen ez denean salbu.

Era berean, horniketa hauek kontratatzen dituen pertsonak ezingo du inolako arrazoirik eman edo zirkunstantziarik argudiatu, hitzartutako kontsumoetan edo kopuruetan murriztapenik egiteko.

Kasu hauetan fakturazioa aldez aurretik egin ahal izango da, horniketaren emakida bera jakinarazten den une beran.

XII. ATALBURUA: IRUZURRAK URAREN HORNIKETAN

86. artikulua. Baimendutako ikuskatzaileak.

Udalak nortasun txartel batekin kreditatuko ditu bere ikuskatzaileak eta bertan bere argazkia eta dagozkion atribuzioak konstaraziko dira.

Baimendutako ikuskatzaileek, Araudi honen ondorioetarako eta edozein hutsegite dagoen egiaztatzeko xedez, dagozkion instalazioak erabiltzen diren lokalak ikusteko eta ikuskatzeko gaitasuna izango dute.

87. artikulua. Ikuskapenaren akta.

Hala, hutsegitea egiaztatu ondoren, baimendutako ikuskatzaileak, ahal bada, iruzurrarekin lotutako elementuak zigilatuko ditu eta dagokion akta jasoko du. Aktan lokalaren kokapena eta bisitaren ordua, sumatutako hutsegitearen deskribapen zehatza eta proba-elementuak, baleude, jasoko dira eta abonatutako pertsonari, edo berarentzat lanean ari den pertsonalari, senitarteko edo ikuskaritza lana ikusten duen edozein testiguri akta sinatzeko aukera emango zaio eta, bertan bide batez, abonatutako pertsonak, bere sinadurarekin, egoki iriz ditzakeen azalpenak konstatarazi ahal izango ditu. Sinatzeari uko egiteak ez du inolako eraginik izango izapideketan ez eta gerora atera daitezkeen ondorioetan ere; eta, era berean, ez dira bere oharpenak kontuan hartuko ez bada akta sinatzen. ***88. artikulua. Jokabidea hutsegiteen kasuan.***

Udalak, jasotako aktaren arabera, instalazioan sumatutako hutsegiteak zuzentzeko errekerimendua luzatuko dio jabeari eta bost lanegunetako epean arazoa konpontzen ez bada, dagokion horniketa etenez aplikatuko da erabakia.

Udalak bere sareetan horniketarako desbideraketak inolako hitzarmenik gabe somatuko balitu, hau da, ezkutuan eginikoak aurkituko balitu, horniketa berehala eten dezake aipatutako desbideraketak.

Iruzur salaketa baten egiaztapena egiterakoan pertsonal eskudunari abonatutako pertsona baten etxebizitzan sartzea eragotziko balitzaio horniketa eten ahal izango da.

89. artikulua. Iruzurragatiko likidazioa.

Udalak, Akta aurrean duelarik, iruzurratiko likidazioa egingo du ondorengo kasu hauek kontuan izanik:

1.Uraren horniketarako kontraturik ez izatea.

2.Edozein prozedura erabiliz, kontagailua edo neurgailuaren erregistroa maneiatzeari edo aldatzea.

3.- Emarian desbideraketak egitea abonatu gabeko erabiltzaile batentzat, izaera iraunkorrez nahiz egoera bati erantzuteko, Udalaren baimenik gabe.

4.Emarian eta neurgailuaren aurretik desbideraketak egitea, izaera iraunkorrez nahiz egoera bati erantzuteko.

5.Urari kontratatutako bestelako erabilerak ematea, aplikatu beharreko tarifaren arabera kontsumoen fakturaketan eragina izanik.

Udalak dagokion likidazioa egingo du, kasu bakoitzaren arabera eta honako era honetan:

—1 kasua: iruzurratiko likidazio bat egingo da eta bertan iruzurrezko egintza horretan erabili beharko liratekeen instalazioei araz egokituko litzazkiokeen kontagailuen kapazitate nominaleko kontsumoa egotziko da, beti ere, titulartasuna edo aipatutako instalazioen erabilera eskubideak eskuratu eta detektatutako iruzurra zuzendu bitarte igarotako denboran eguneko hiru ordutako kontsumoa izan dela iritziz; nolana ere, ez da urte betetik gora luzatuko aipatutako epe hori.

—2 kasua: instalatutako kontagailuko edo aparailuko markaketak faltsutu badira, beraien funtzionamendu okerra eragiten duten prozedura edo gailuak erabiliz, iruzurraren zenbatekoaren likidazioa finkatzeko oinarri gisa nominalaren kapazitatea hartuko da eta kontagailuaren azken egiaztapen ofiziala egin eta iruzurra zuzendu bitarte igarotako denboran eguneko hiru ordutako kontsumoa izan dela iritziko da; nolana ere, iruzurraren egileari denbora-epe horretan ordaindu dituen kontsumoak deskontatuko zaizkio.

—3 kasua: Iruzurra egin bada emaria kontagailuaren aurretik desbideratuz, lehen kasuan bezala likidatuko da horniketa kontraturik izango ez balitz, eta ez da kontagailuan neurtutako uraren deskonturik egingo.

— 4. kasua: Emariak abonatu ez den beste erabiltzaile batengana desbideratzen badira Hernaniko Udalaren baimenik gabe, titularrari fakturatuko zaio emari desbideratuari dagokiona, 1. kasuan adierazitako moduan, eta desbiraketa hori berehala itxi beharko da.

—5 kasua: kasu honetan, erabilera okerra eman zaion ur kopuruaren likidazioa Udalaren alde egingo da eta, hala, urari ematen zaion benetako erabilerari aldi bakoitzean dagokion tarifaren eta kontratatutako erabilera kontuan izanik aplikatu zaion tarifaren arteko diferentzia kontsumoari aplikatuz egingo da. Aldi edo denbora-epe hori ezingo da urte betetik gorakoa izan.

Kontagailuaren emari nominaltzat hartuko dira, kontrakorik erakusten duen frogarik aurkezten ez den bitartean, ondorengo taulan kontagailuaren diametroaren arabera, jasotzen direnak.

Kalibrea/mm Emari nominala (m³/h)

13 mm.	1,5
15 mm.	1,5
20 mm.	2,5
25 mm.	6,0
30 mm.	6,0
40 mm.	10,0
50 mm.	50,0
65 mm.	65,0
80 mm.	120,0
100 mm.	180,0
125 mm.	180,0
150 mm.	450,0
200 mm.	700,0

Kasu guztietan eta aurreko pasartean ezarritako manamenduen arabera ondoriozta daitekeen zenbateko horri, saneamenduko tasa eta gainontzeko zergak aplikatuko zaizkio eta, ondorioz, egiten diren likidazio horietan jaso beharko dira.

Udalak egiten dituen likidazioak interesatuei jakinaraziko zaizkie eta, hauek bere aldetik, erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

XIII. ATALBURUA: TARIFAK EZARTZEKO SISTEMAK

90. artikulua. Baldintza orokorrak.

Araudi honetako ondorioetarako, tarifa-sistema izango da abonatuak pertsonak ordaindu beharreko prezioa osatzen duten kontzeptuen multzoa, Udalak bere zerbitzuak eskaintzeko oreka ekonomikoa eta finantzarioa lortzeko eta hari eusteko ordaintzen dena, alegia.

91. artikulua. Kuota finkoa edo zerbitzu kuota.

Erabiltzaileek erabilgarriasunagatik, aldian aldian eta berdin zerbitzua erabiltzen edo erabiltzen ez bada, ordaindu behar duten kopuru finkoa da.

Prezioa kontagailuaren diametroaren arabera aldatuko da.

92. artikulua. Kuota aldakorra edo kontsumoko kuota.

Abonatutako pertsonak aldian-aldian izan duen kontsumoaren arabera ordaintzen duen kopurua da. Kuota hau koantifikatzeko tarifa jakin bat aplikatzen da. Uraren erabilera bera duen kontsumoa tramoka fakturatzen da.

93. artikulua. Saneamendua.

Saneamendu kuota aldi horretan fakturatutako uraren zenbatekoaren arabera fakturatuko da.

94. artikulua. Kontagailuen alogera eta artapena.

Kontagailuaren horniketa hernaniko Udalari alokatzen zaionean, instalatutako kontagailuaren kalibreari dagokion kuota ordainduko da alogera eta artapen kontzeptuan.

Abonatutako pertsonak bere jabetzako kontagailuaren artapen zerbitzua kontratatzen badu, Hernaniko Udalak lan hori egingo du, eta instalatutako kontagailuaren kalibreari dagokion kuota erantsiko dio.

95. artikulua. Zergak.

Fakturatzen diren kontzeptu desberdinei une bakoitzean aplikagarri zaizkien zergak jasoko dira fakturretan.

XIV. ATALBURUA: ERREKLAMAZIOAK ETA JURISDIKZIOA

96. artikulua. Baldintza orokorrak.

Toki Administrazioaren gaitan indarrean dagoen legedian ezartzen den prozedurarekin bat etorriz, eta Hernaniko Udalaren jardueren eta erabakien aurka egiteko egoki irizten diren bideak hautatzearen kalterik gabe, zerbitzuak eskaintzeko baldintzen inguruan sortzen diren erreklamazioak, zalantzak eta interpretazioak, kasu bakoitzean eskudun den Administrazio Publikoko organoak erabakiko ditu bide administratiboan.

Aurreko pasartean ezarritakoaren kalterik gabe, Justiziako Auzitegiei dagokie, beren jurisdikziopeko gai propioetan eta alde interesatuaren eskaerari erantzunez, esku hartzea.

Nolanahi ere, eta Araudi honetan arautzen diren zerbitzuetatik eratorritako harremanen ondorioz Udalaren eta abonatutako pertsonen artean sortzen diren

auziak, Donostiako Epaitegi eta Auzitegien jurisdikziopean egongo dira, beste ezeini uko eginez.

XV. ATALBURUA: ARAU-HAUSTE ETA ZIGORRAK

97. artikulua. Arau-haustekak

Abonatuak egindako arau-haustetzat joko dira, Ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak ez betetzea, hala nola 2. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik Udalak onartzen dituenak ez betetzea. Arau-haustekak zergatzekoak eta ez-zergatzekoak izan daitezke.

98. artikulua. Ez-zergatzeko arau-haustekak

Ez-zergatzeko arau-haustekak, era honetara sailkatuko dira garrantziaren eta ondorioen arabera: arinak eta larriak.

Arau-hauste arinak izango dira Ordenantza honetako ondorengo artikulua eta ataletan abonatuari ezarritako betebeharrak ez betetzea: 10. artikulua, 7., 8., 9., 10., 11. eta 12. atalak.

Arau-hauste larriak izango dira honako artikulua eta ataletan datozen arauak ez betetzea: 10. artikulua, 3., 4., 5., 6., 13., 14. eta 15. atalak. Arau-hauste larritzat joko da, berebat, arau-hauste arintzat jotako arau-haustea behin eta berriz egitea.

99. artikulua. Zergatzeko arau-hausteen motak

Zergatzeko arau-haustekak izango dira, larriak zein arinak, araua aplikatzerakoan indarrean dagoen legerian izaera hori ematen zaizkienak.

100. artikulua. Arau-hauste arinak

Arau-hauste arinek Zerbitzuaren ohartarazpena ekarriko dute, eta abonatuak bere egoera normaldu beharra hori beharrezkotzat jotzen denean. Ohartarazpena jaso eta hamabost eguneko epea izango du abonatuak. Abonatuaren kargura izango dira egoera normaltzeko gastu guztiak.

101. artikulua. Arau-hauste larriak

Arau-hauste larriak, 105. artikuluaaren arabera egin beharreko likidazioak likidazio, uraren 500 metro kubikori dagokion tarifaren zenbateko baliokideaz zigortuko dira, salbu tokiko erregimenaren arloan aplikatu beharreko legeak muga handiago ezarri, edota arau-haustearen larritasunagatik sektoreko legeriarekin bat etorritik zigor handiagoa jarri behar. Horrela jarritako zigorra edozein delarik ere, kasuak hala eskatzen duenean, zerbitzuak etengo dira harik eta Zerbitzuak instalazioa bere onera ekarri dela ziurtatu arte edo arau-hausteararekin jarraituko dela ekiditeko neurri

zuzentzaileak hartu direla ikusi arte. Aurrean ezarritakoak ez ditu ukatuko abonatuak berak sortutako egoeragatik dagozkion zuzeneko erantzukizunak.

Edonola ere, ur-horniketak ez da emango, egindako arau-haustearen ondorioz gastuak eragin badira eta horiek ordaindu ez badira.

102. artikulua. Arau-hauste arina berriro egitea

Arau-hauste arina behin eta berriz egitea arau-hauste larritzat joko da.

103. artikulua. Zergatzeko arau-hausteak

Zergatzeko arau-hausteak legeria aplikagarriak edozein unetan ezartzen duenaren arabera zigortuko dira.

104. artikulua. Instalazioak maneiatzeari

Iruzurra instalazioak maneiatzearen ondorioz egiten denean, eten egingo dira kontratatutako zerbitzuak, harik eta maneiatutako instalazioak bere onera ekarri arte eta maneiatze horren ondorioz eragindako gastuak arau-hautsi duenak ordaindu arte.

105. artikulua. Iruzurrezko arau-hausteak

1.- Iruzurrezko arau-hausteak, egoki diren zigorrez gain, egindako iruzurrari dagokion likidazioari erantzun beharra eragingo dute.

2.- Iruzurraren ezaugarriengatik, eta aurreko atalean aipatzen den likidazioari begira, ezinezkoa gertatzen denean kontsumitutako ur-bolumena kalkulatzeari, iruzurra egin den aldi hartunetik igaro ahal izan den gehienezko ur-bolumena izango da kontuan, betiere egunean hogeita lau ordutan kontsumitu izan balitz bezala.

Iruzurra egin den aldi hori ezin bada zehaztasunez kalkulatu, honako denboraren eskalak erabiliko dira likidazioa egiteko, betiere kasu bakoitzean ematen den egoera kontuan izanik:

- Aztarnen arabera susmatzen denean, iruzurraren aldia ez dela izan hamabost egunetik gorakoa: hamabost egun.
- Susmoen arabera, iruzurra hilabete ingurukoa izan dela susmatzen denean: hogeita hamar egun.
- Susmoen arabera, iruzurra hilabete eta hiru hilabete artekoa izan dela susmatzen denean: laurogeita hamar egun.
- Susmoen arabera, iruzurra hirutik sei hilabete bitartekoa izan dela susmatzen denean: ehun eta laurogei egun.
- Eta sei hilabetetik urtebetara artekoetan: hirurehun eta hirurogeita bost egun.
- Urtebetetik gorakoentzat: zazpiehun eta hogeita hamar egun.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

1. Kutxetek, erregistro-kutxek eta kontagailuen gelek beren bateria eta guztikoek araudi hau indarrean sartzen denean bertan eskatzen diren betebeharrak betetzen ez badituzte eraikuntzen ezaugarriei dagokienez, araudi honetako eskakizunetara egokitu behar dira. Horretarako, 8. xedapen iragankorrean jasotzen den prozedura beteko da.

2. Kutxetetan, erregistro-kutxetan, aire librean, baterian edota etxebizitza edo lokaletan dauden kontagailuek araudi hau indarrean sartzen denean bertan eskatzen diren betebeharrak betetzen ez badituzte kokapenari dagokionez, eta arua ez betetzearen ondorioz kontagailuak ezin badira irakurri edo behar denean konpondu, araudi honetako betekizunetara egokitu behar dira. Horretarako, 8. xedapen iragankorrean jasotzen den prozedura beteko da.

3. Araudi hau indarrean jartzen den egunean, aurreko puntuan sartzen ez diren kontagailuek, araudi honetak 44. artikuluan jasotzen diren homologazio-baldintzak betetzen ez badituzte, ordezkatu egin behar dira, 8. xedapen iragankorrean jasotzen den prozeduraren arabera.

4. Arau hau indarrean jartzen den egunean, eraikuntza ezaugarriei dagokionean exijitzen diren betebeharrak betetzen ez dituzten kutxetak, erregistro kaxak eta kontagailuen bateriak jasotzen dituzten gelak, Udalak homologatutako sarraila sistema hartu beharko dute. Eguneratzeko prozedura 8. xedapen iragankorrean jasotakoa izango da.

5. Araudi hau indarrean jartzen den egunean kontratu edo polizarik ez duten abonatuak pertsonak ez dute sinatu beharrik izango horniketaren erabilera aldaketarik izaten edo egungo eskubideen eskualdaketa edo subrogazioa izaten ez den bitartean. Nolanahi ere, Udalak horniketaren egoera erreala argitzeko beharrezkoa iritziko balu, kontratua sinatzeko proposamena egin ahal izango du.

6. Araudi hau indarrean jartzen den egunean egiten diren horniketak erabilera anitzeko kontagailu bakar baten bidez egiten badira, barruko instalazioa aldatu behar dute, erabilera bakoitza kontagailu desberdinaren bidez hornitzeko eta egoki diren poliza berriak sinatzeko. Eguneratzeko prozedura 8. xedapen iragankorrean jasotakoa izango da.

7. Hernaniko Udalaren kargurakoa izango da lepokoa, hartune-giltza eta kutxeta/erregistroa mantentzea, araudi hau onartu eta gero egiten diren instalazioetan, betiere araudian bertan ezarritakoarekin bat etorriz.

8. Kutxeta/erregistroa berriro egin behar bada, Udalari egotziko zaio eginbearra, hori hodi nagusiaren eta hartune-balbularen irteera bitartean gertatutako matxuraren ondoriozkoa bada. Nolanahi ere, abonatuak edo abonatuak ordaindu beharko dute, kutxeta egin beharra eragin duen matxura balbula horren eta instalazio orokorraren bitartean gertatu bada.

8. Araudi honetako 1etik 6ra bitarteko xedapen iragankorretan aipatzen diren eguneratzeko prozeduretan honako pausuak emango dira:

Aldizkako ikusketa baten ondorioz erabakitzen bada instalazioa ez dagoela araudira egokituta honako arrazoiengatik:

- Kutxeta, erregistro, kontagailuen gelak eta kontagailuen baterien eraikuntza baldintzak.
- Kontagailuen kokapena.
- Kontagailuen bizitza baliagarria.
- Kontagailuen ezaugarri teknikoak.
- Kontagailuaren gelara sartzeko behar den giltzaren homologazioa.
- Zerbitzua kontratatzeko behar diren daturik ez ematea edo zuzenak ez izatea.
- Kontagailu bat bakar baten bidez erabilera askorako egitea horniketa.

Holako egoera ez egokiak gertatzen direnean ikusketa-aktan jasoko dira, eta une horretan bertan erabiltzaileari ohartaraziko zaio, kasu bakoitzean, zuzendu behar dituen okerrak; egin behar dituen tramiteak; ustezko gastuak; epeak eta horiek betetzen ez baditu jasoko dituen zigorrak.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Araudi hau indarrean jartzen den egunean, indar eta baliorik gabe geratuko dira, Araudi honen aurka doazen bere pareko edo maila txikiagoko xedapen, erregelamendu eta Araudi guztiak.

AZKEN XEDAPENA

Araudi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

ERANSKINAK

EDATEKO URAREN HARTUNEAK GAUZATZEKO ARAU TEKNIKOAK, NEURGAILUAK ETA INSTALAZIO BEREZIAK

1. Xedea.

Arau honen xedea da, hartuneek funtzionamendu egokia izateko exijitu behar diren baldintza minimoak ezartzea, beti ere, ohiko erabilerako baldintzen barne, horniketa nahikoa eta erregularra izan dadin.

Arauk egiteko Eraikuntzaren Kode Teknikoa hartu da erreferentzi gisa. Hemendi aurrera, kode hori aipatzen den aldiro CTE deituko zaio. Aldiz, agiri honetan jasotzen diren arauak, «Arau Teknikoak» izenarekin azalduko dira.

Derrigorrez betetzekoak izango dira eraikuntza berriko instalazioetan, bai eta egun daudenetan zabalpenak egiteko ere.

2. Gai orokorrak.

Hartuneak behar bezala baimendutako enpresek edo profesionalek egingo dituzte; eta, hain zuzen ere, haiei eta proiektuak idazten dituzten pertsoneri zuzentzen zaizkie Arau Tekniko hauek.

Ezaugarriak, eranskin honetako 5. eta 7. puntuekin bat etorritik, uraren presioaren, hitzartutako ur emariaren, aurreikusitako kontsumoaren, hornitu behar den eraikinaren kokagunearen eta dituen zerbitzuen arabera finkatuko dira.

Arau orokor gisara, finka bakoitzak bere hartune propio eta bakarra izango du eta horretarako eraikinean izan daitezkeen kontsumo guztiak, merkataritzako lokalenak barne, aurreikusi beharko dira, suteen aurkako hartunea izan ezik, hori independentea izango baita.

Hasiera batean, ez da hartunerako baimenik emango, azterketa xehekatua egin ondoren, diametroa edo balioetsitako kontsumoaren arabera sareko baldintzak erantzungo ez diola aurreikusten denean.

3. Definizioak.

3.1. Hartunea eta maniobrako giltzak.

—Hartune-hodia eraikinen, lokalen, lurzatiaren edo bestelako eraikinen barneko instalazio orokorra banaketa sareko hoditeriarekin lotzen duen hodia da.

—Hartunea banaketa sareko hodiaren gainean dago eta instalazioaren barneko hartunearen eta sarearen arteko lotura da. Komenigarria da erabiltzen den sistemak sarean, hodia zerbitzutik kanpo utzi gabe, hartuneak egiteko eta hartuneetan maniobrak egiteko aukera ematea.

—Hartuneko giltza muntaiaren arabera, hartunearen lepoan edo «t»an egongo da eta sarea eta hartune-hodiaren arteko lotura eteteko izango da.

— Hartune-hodia hartunearen gailu eta jabetzatik kanpo dagoen mozketa-giltzaren arteko zatia da. Mozketa-giltzarik ez da jarriko bien artean bost metro baino gutxiagoko tartea badago.

—Mozketa-giltza hartunearen gainean egongo da, erregistro kutxeta bateanblikoan eta eraikuntzaren ondoan. Hernaniko Udalak edo bereziki baimendutako pertsonak bakarrik erabili ahal izango dute; inolaz ere ez ordea, abonatuak, jabeak edota hirugarren pertsonak. Behar bezala homologatutako erregistro-kutxetan egongo da, erabili eta konpondu ahal izango den moduan.

—Mozketa orokorreko giltza, elikadura-hodiaren gainean egongo da, barneko aldean, erregistro-kutxeta batean; eta higiezinaren kanpoko hormaren ondoan edo finkaren itxituraren ondoan kokatuko da. Alabaina fatxadetan, behar bezala iragazkaiztutako eta nahiko neurriko ganbara batean ere jarri ahal izango da. Ganbara honek bere ate edo dagokion erregistroko estalkia izango du; itxitura sistema egokia eta behar bezala identifikatuta egongo dena. Bestalde, ganbara hori eraikinaren sustatzaileak edo hartunearen berriketa edo zabalpena eskatu duen elkargoaren edo pertsonaren kargura eraikiko da. Beharrezkoa izango balitz itxi egin ahal izango da eraikineko barneko instalazio osoa urik gabe uzteko, baina beti ere, jabearen edo higiezinaren pertsona erantzulearen erantzukizunpean itxiko da.

3.2.Eraikinaren barneko instalazio orokorra.

—Elikadura-uraren hodia higiezinako hartunea banakako kontagailuen bateriarekin edo, bateriarik ez dagoen kasuan, kontagailuarekin lotzen duen hodia da. Eraikinaren itxitura-horma zeharkatuko balu, horman irekitako pasabide baten bidez egingo da eta juntura estankoak izango ditu atmosfera bateko presioan, elikadura-hodiaren dilataziorako aukera eman dezan. Bestalde, erabilera amankomuneko ingurutatik igaroko da eta, posible izango balitz, agerian egongo da bere ibilbide osoan. Nolanahi ere, horretarako eraiketa trabarik izango balitz plastikozko hodi estanko baten barnean sartuko da eta guztia ormigoiez estaliko da erresistentzia mekanikoa emateko. Plastikozko estaldura, gutxienez, elikadura-hodiaren bi halako diametrokoa izango da eta bere muturretan erregistroak eta izan daitekeen edozein itogin kontrolatzeko ikuskaritza egiteko aukera eman ditzaketen norabide aldaketak izango ditu.

Hodia hormetatik edo forjaketatik barrena igaroko balitz, 10 mm-ko gutxieneko lasaiera izango duen PVCko zorro bat pasako da eta errezipimendua karezko mortairuarekin edo plastiko hedagarriko materialarekin egingo da; era berean, diametroa edo errezipimendua egokiak ez badira baztertu egingo da.

Obraren harrera egin aurretik, Udalak hormetako zorro horiek eta beraien errezipimendua kontrolatzeko ikuskaritza egingo du eta, automatikoki baztertuko dira diametroa edo errezipimendua egokiak ez badira.

Behin instalazioa manamendu hauen arabera egin ondoren Udalak edo horrek delegatzen duen pertsonak egingo du instalazioa.

—Banakako kontagailuen bateria, elikadura-hodiaren amaieran instalatuko da, eta, zirkuitu itxi bat osatuz, hodi horizontal eta bertikalen multzo batek osatuko du eta gehienez, kontagailuak elikatzen dituen hiru hodi horizontal izango ditu; bide batez, aparailu horien eta beren giltzen euskarri izango dira. Uraren sarrera-giltza, kontagailuaren aurrean kokatuko dena, bateriarekin lotuko du eta irteerako giltzak uraren itzulera eragotziko duen gailu bat jartzeko aukera emango du.

Bateriak helburu horretarako eraikiko diren armairu edo gelatan kokatuko dira eta eraikinaren behe oinean edo lehen sotoan edo eraikinaren kanpoko aldean jarriko dira, sarbide errazeko eta higiezinaren erabilera amankomuneko toki batean. Bertara indar elektrikoa eramango da eta indarra hartzeko hartune bat izango du Behe-Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoaren (MI-BT 027 argibidea) arabera. Era berean, hustuketa sifonikoko iragazkaizketa izango du eta, matxura izanez gero, ur guztia saneamenduko sarera botatzeko adinako neurria eta, gutxienez, elikadura-hodiaren diametroaren bi halako izango da. Eta bide batez, bateria hauek gas eta elektrizitate kontagailuak biltzen dituzten bestelako aretoetatik bereziturik egongo dira.

Armairuak, gutxienez, kontagailuen muntaia, desmuntaia eta irakurketa egiteko adinako neurriak izango ditu. Kasu guztietan maneiaketarako gune librearen altuera, gutxienez, 2 metrotakoa izango da eta, kontagailuen irteera-giltzatik aurrera, metro bateko espazio librea izango du.

Bateria osatzen dituzten hodiak, gutxienez, inguratzen dituzten paramentuetatik, 0,2 metrotako distantziara egongo dira eta kontagailuak, zorutik gorako altuera izanik, gutxienez 0,30 m-tara eta gehienez 1,50 m-tara egon beharko dute.

Bateria dagoen tokira sartzeko beste ate bat igaro beharko balitz, gelaren beraren atiaz beste bat, alegia, berau beti irekita egongo da edo Udalak erabakitako itxitura sistema izan beharko du. Baldintza hau betetzetik salbuetsita dago kaletik barrura, eraikinera sartzeko atea.

Kontagailuen gelatan telefono linea bat instalatu ahal izango da, etorkizunean tele-irakurketarako aukera izan dadin.

—Baterian instalatuta ez dagoen kontagailua pasabide giltza dagoen ganbara berean eta haren ondoren jarriko da elikadura-hoditik bereziturik, partzialki bada ere. Nolanahi ere, instalazioa kontagailuaren funtzionamendu egoki batetarako egingo da eta, horretarako, kontagailuaren aurretik eta ondoren, bere kalibrearen eta ezaugarrien arabera, behar dituen hodi zati zuzenak izango ditu. Kontagailua desmuntaia erraztuko duten bi giltzen artean kokatuko da eta erretentzio balbula bat eta egiaztapenatarako hartune bat izango ditu. Ganbarak hustuketa naturala izango du; eta matxurarik izanez gero, ur guztia kanpora husteko adinako neurriak izango ditu eta, gutxienez, hartuneko hodiaren bi halako diametrokoa izango da.

*Pasabidearen Giltza eta Jarritako Kontagailu Orokorreko Kutxetaren Gutxieneko Neurria hau izango da: CTE HS4ko 4. artikuluan adierazten dena.

Nolanahi ere, kanpoko horman txertatuta ere instalatu ahal izango dira; ganbararen barneko alde osoa luzitu egingo da eta kontagailua erregistroko giltzatik ahalik eta gertuen kokatuko da, gehienez ere, 3 metrotara.

Atea orri bat edo gehiagokoa izango da, baina armairuaren zabalera osoa hartu beharko du.

Itxitura normalizatua izango du eta, era berean telefono linea izan ahal izango du.

Kontagailuaren Armairurako Gutxieneko Neurria hau izango da: CTE HS4ko 4. artikuluan adierazten dena.

Erretentzio orokorreko balbula elikadura hodiaren gainean kokatuko da pasabide-giltzaren ondoan edo, baterian instalaturik ez dagoen kontagailuaren kasuan, haren ondoren. Bere helburua banaketa sarera itzul daitezkeen ur susmagarrietatik babestea da.

Era berean, derrigorrezkoa baterian instalatutako kontagailu bakoitzean erretentzio-balbula bat jartzea.

4. Neurgailuak (Kontagailuak).

Araudi honetako VII. atalburuan ezarritakoa bete beharko dute.

5. Hartuneen dimensionamendua, neurgailuak eta haien kokapena.

Edateko uren horniketarako hartuneek, printzipioz, CTEk eta abenduaren 3ko 2267/2004 ED finkatzen dituen neurriak izango dituzte.

Suteen aurkako sareen hartuneak, berriz, NBE-CPI-82 araua kontuan izanik, dagokion neurriak izango ditu. Kontagailua izan beharko dute beti, eta Hernaniko Udalak homologatutakoa izateaz gainera hartunearen diametroaren neurri berekoa izango da.

Berdeguneen eta iturri publiko edo apaindurazkoen ureztaketarako hartuneak, aurreikusitako kontsumoaren eta sarearen baldintza hidraulikoen arabera legokiokeen neurria izango du; eta sarrera errazeko toki batean kokatutako kontagailua izan beharko dute.

Industriarako eta aurreko kasuetan aurreikusi gabeko bestelako kasuetan, aurreikusitako kontsumoaren arabera neurriak izango dituzte hartuneek eta, beti ere, kontsumoa arrazoitu egin beharko da.

Edozein kalkulu egiteko kargako galerak zehaztuko dira Darcy-Weisbach-en adierazpena erabiliz eta, beroni, Colebrook-White-en ekuaziotik ateratzen den

koefizientea aplikatuko zaio. Zimurtasuna koefizientea fundiziorako 0,6 mm-koa izango da eta polietilenorako 0,03 mm. Erabili beharreko biskositate zinematikorako balioa 0,0000011 m²/seg. izango da. Aipatu diren koefizienteak kontserbadoreak badirudite ere, instalazioaren zahartzea bermatzen dute eta, gainera, ezingo dira kontuan hartu kargako galera singularrak.

«Airearen hozketan edo egokitzapenean» ere emari handiak behar izaten dira eta, horrenbestez, instalazioak Oinarrizko Arauetako 3. tituluan ezarritakoari egokituko dira.

•Hartuneen neurriak. CTEk, HS4 Oinarrizko Dokumentuak eta Hartune, Elikadura-Hodi eta Presio Taldeak dimentsionatzeko Memoria Teknikoak adierazten duenaren arabera neurtuko dira, eta holakorik ezean, ordeko konponbidean ezarritakoaren arabera (CTEko 5.1.3 artikuluko b atalean ezarritakoaren arabera).

6.Instalazio Bereziak.

•Sobrepresioko multzoak.

Zerbitzuak bermatuko du, oro har, sareko presioaren bidez uraren zuzeneko horniketa, hartuneko edo hartunearen adarreko presioa ez denean 15 metrokoa baino gehiagokoa bere gailurrean. Holako kasuetan, igotzeko ekipa bat instalatu beharko da, eta horretan ponpa bultzatzaileek andel lagungarri batetik hartu beharko dute ura halabeharrez. Erabat debekatuta dago ura instalazioko hodietatik zuzenean hartzea.

Presio-ponparen ekipoa eraikineko beheko solairuan edo sotoan jarriko da.

Neurriak CTEn adierazitakoaren arabekoak izango dira.

•Suteetarako Hartuneak.

Eraikineko hartune orokorretik bereizita egingo dira; horien instalazioan hartune orokorrak egiteko erabiltzen diren elementu berberak erabiliko dira.

Neurriak finkatzeko hartuneko adar bakoitzerako aurreikusitako kontsumoen baturatik ateratzen den emaria hartuko da kontuan.

•Klimatizazio eta aire egokituko unitate sistemak.

Sare publikoko ura erabiltzen duten hozketako eta aire egokituko unitateen sistemetarako, azerketa bat egin beharko da, birzirkulaziorako instalazio bat eta dagokien erretentzio balbula jarri behar ote zaien ikusteko.

7. Erabili beharreko materialak.

Hartuneetan erabil behar diren hodi eta giltzen materiala, oro har, 16 kg./cm²-ko gutxieneko presioan lan egiteko gauza izan behar dute, beti ere, zerbitzuaren

presioa eta kanilak isterakoan sortzen diren ariete-kolpeei aurre egiteko behar besteko indarra izan dezaten.

Hartuneak:

—Diametroa 80 mm-koa edo handiagoa:

*Fundizio nodularra juntura automatiko malguarekin. Fundizio nodularreko piezak.

—Diametroa 80 mm-tik beherakoa:

*Dentsitate altuko polietilenoa, PE100, UNE-EN12201 arauen arabera, laneko presioaren goitik tinbratua, gutxienez PN16. AENOR 001 kalitate marka izan beharko du. Piezak latoi estanpatukoak.

Materiale guztiak, osagaiak eta instalatutako gainontzeko elementuak ofizialki homologatuak izan behar dute.

Nolanahi ere, instalazioa osatzen duten elementuek UNE arauen edo berauen baliokide europarren, egun aplikagarri diren eta etorkizunean eman daitezkeen arauetan finkatuko diren jarraibideen arabera eginak izan beharko dute.

8. Trazadura.

Trazadura hornidura sarearekiko, ahal den guztietan, ortogonal izango da eta derrigorrezkoa ez den bihurtzeko oro kenduko da.

Printzipioz ez dira gurutzadurak onartuko galtzadan eta bakar bakarrik egin ahal izango dira, beste trazadurarik egitea guztiz ezinezkoa denean; eta beti ere, Udalaren baimenarekin eta beti udalak eskatzen dituen baldintzak betez egin beharko da.

•Beste zerbitzuekiko lotura (gurutzadurak eta paralelismoak).

Bere trazaduran edateko uraren eta gainontzeko zerbitzuen artean izango diren gurutzadura eta paraleloki joateko distantziak, une bakoitzean Legediak eta Udal Ordenantzek ezartzen dituztenak izango dira.

Nolanahi ere edateko uren hartuneen eta saneamenduko hartuneen arteko distantzia paraleloa, gutxienez, 0,40 metrokoa izango da. Dena den, ur hartunea horien guztien gainetik joango da.

9. Ikuskaritzak.

"Arau Tekniko" hauen arabera gauzatu diren instalazioak martxan jarri aurretik, Enpresa edo pertsona instalatzaileek "Arau Tekniko" hauetan aurreikusitako erresistentzia mekanikoko eta estankotasun probak egin beharko dituzte; eta horretarako Udala jakinaren gainean jarri beharko da.

Udalak arauz ezarritako probak egin eta, Arau Tekniko hauen arabera gauzatu diren instalazioen funtzionamendu ona bermatzeko, beharrezko irizten dituen gainontzeko ikuskaritza, gainbegiraketa eta egiaztapen proba guztiak egin ahal izango ditu.

Proba hauek emaitza ona izan dutela iritziko da Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Lurralde Ordezkaritzak emandako Ziurtagiria aurkezten bada.

10 Probak instalazioetan.

Instalazioa osatzen duten elementu eta osagai guztiak izango dira arauzko probak egiteko gai.

Hodiarik estaltzeari ekin aurretik Enpresa instalatzaileek ondoren proba hau egin beharko dute derrigorrez.

•Erresistentzia mekanikoko eta estankotasun probak.

Proba hau presio hidraulikorekin egingo da.

Instalazioa osatzen duten hodi, elementu eta osagai guztiei egin beharko zaie proba hau.

.Probak hodi instalatuan

Erregelamendu edo araudietan eskatzen diren frogetara mugatzearen, MOPUren Ur-horniketako hodietarako Agindu Tekniko Orokorren agiriko edukiari lotuko gara, eta batez ere horko 11. kapituluaren xedatzen dena, hau da:

11. Probak hodi instalatuan

11.1. Derrigorrezko probak.

11.1.1. Zangan instalatutako hodian honako bi proba hauek egin behar dira derrigorrez:

1. Barruko presioaren proba.

2. Estankotasunaren proba.

Proba horiek egiteko behar diren elementu guztiak ekarriko ditu kontratistak, baita horretarako behar diren langileak ere; Administrazioak manometroak eta ekipo neurgailuak ekarri ahal izango ditu, baldin eta egoki iruditzen bazaio kontratistak ekarritakoak ikuskatzea.

11.2. Barruko presioaren proba.

11.2.1. Hoditeria muntatu ahala, hodiaren barruko presioaren probak egingo dira Administrazioak finkatutako luzerako zatietan. Gomendagarria da zati horiek 500 (bostehun) metro ingurukoak izatea, baina aukeratutako zatian, sestrarik behkeenaren eta sestrarik goikoenaren arteko presio-diferentzia ez da 11.2.6an ezarritako proba-presioaren ehuneko hamar (100eko 10) baino handiagoa izango.

11.2.2. Probak egiten hasi aurretik, behin betiko lekuan jarrita egon behar dute hodiaren osagarri guztiek. Zangak beteta egon behar du hein batean, eta junturak agerian.

11.2.3. Probaren xedeko zatia urez betetzen hasiko gara, poliki-poliki eta barruko airea kanpora dezaketen gailu guztiak irekita utziko dira; horiek gero, hodian aierik ez dagoela egiaztatu ondoren, ondoz ondo itxiz joango gara behetik gora. Ahal bada ura beheko aldetik sartuko dugu, horrela erraztu egingo dugulako airea goiko aldetik irtetea. Hori ezingo balitz egin, urez betetzea askoz ere mantsoago egingo dugu, hodian aierik gera ez dadin. Hodiaren gailurrean iturri bat jarriko dugu behetik gora datorren airea purgatzeko eta probaren xedeko hodi zatiaren barrua erabat komunikatuta eta modu egokian dagoela egiaztatzeko.

11.2.4. Uraren presioko ponpa eskuzkoa edo mekanikoa izan daiteke, baina mekanikoa denean deskargako giltzak edo presioaren gehikuntza erregulatzeko gailu egokiak eduki behar ditu. Ponpa probatuko den hodiaren gunerik baxuenean jarriko da eta bi manometro edukiko ditu; horietako bat Administrazioak berak ekarriko du alde aurretik ikuskatu ondoren..

11.2.5. Probatu nahi den hodiaren muturrak pieza bereziekin itxiko dira eta horiek zurkaiztu egingo dira, irristatzeak edo ihesak ekiditeko. Pieza horiek, halaber, erraz desmuntatzekoak izango dira, hodiaren muntaiarekin nahi denean jarraitu ahal izateko. Arreta handiz zainduko da proban dagoen zatiko giltzak, halakorik badago, behar bezala daudela irekita. Norabide-aldagailuak, pieza bereziak, eta abarrek ainguratuta egon behar dute eta beren fabrikak erresistentzia handikoak.

11.2.6. Hodia zangan dagoela probatuko da, eta horko presioa probatzen ari garen hodi zati baxuenean presio handieneko gunean dagoen gehieneko presioa baino bat koma lau (1,4) bider handiagoa izango da. Presio hori emeki-emeki igoaraziko da, presioaren gehikuntza ez dadin kilogramo bat (1) baino handiagoa izan zentimetro kuadroko eta minutuko.

11.2.7. Nahi den presioa lortu ondoren, hogeita hamar minutuko etena egingo da, eta denbora horretan manometroa askorik jaisten ez bada ($p/5$ en erro karratua; p = zangan egindako proban zentimetro koadroko lortu den presioa) ontzat emango da. Manometroa hori gehiago baino jaisten bada, akatsak zuzentzera joko da, ura galtzen duten junturak erreparatuz eta, behar bada, hodiren bat aldatuz, edo behar dena eginez, presioaren jaitsiera ez dadin adierazitako neurri hori baino handiagoa izan.

11.2.8. Hormigoizko eta amianto-zementuzko hodien kasuan, presioaren proba egin baino lehen, hodia urez beteko da eta horrela edukiko, gutxienez hogeita lau (24) orduz.

11.2.9. Kasu berezietan, hala nola muntatzerakoan, hodia betetzeko ur gutxi dagoenean edota bestelako egoeretan, alegia, kontratistak proposatu ahal izango du, arrazoiak emanez, beste sistema bereziren bat erabiltzea, junturak ikuskatzeko

segurtasun neurri berdina gordez. Proposatutako proba-sistemak berme nahikorik ematen ez badu, Administrazioak proba gaitzesteko aukera izango du.

11.3. Estankotasunaren proba.

11.3.1. Hodiaren barruko presioa ikusteko frogak emaitza onak izan dituztela ikusi ondoren, estankotasunaren proba egingo da.

11.3.2. Probaren xedeko hodi zatian zegoen presio estatiko gorena izango da estankotasun-probako presioa.

11.3.3. Frogetan dagoen hodi zatia urez bete eta gero, estankotasunaren proba egingo dugu. Horretan lortutako presioa konstante mantentzeko, ura sartu beharko dugu hodian ponpatxo baten bidez, eta presio hori mantentzeko sartu behar dugun urari galera deituko diogu.

11.3.4. Estankotasunaren probak bi orduko iraupena izango du, eta denbora horretan izango duen galerak honako formularen bidez ateratzen den balioa baino txikiagoa izan behar du:

$$V = K L D$$

hizkien honako balioez:

V = probako galera guztira, litrotan.

L = probaren xedeko zatiaren luzera, metrotan

D = barruko diametroa, metrotan.

K = materialari dagokion koefizientea.

Honako taularen arabera:

Hormigoi masan K = 1,000

Hormigoi armatua atorrarekin edo gabe K = 0,400

Hormigoi aurreatezatua K = 0,250

Fibrozentua K = 0,350


Burdinurtua K = 0,300

Altzairua K = 0,350

Plastikoa K = 0,350

11.3.5. Edozein modutara, finkatutako galerak edonolakoak izanik ere, horiek gaudituz gero, kontratistak bere kargura ikuskatu beharko ditu juntura eta akatsak dituzten hodi guztiak; kontratistak, halaber, hoditerian atzemandako edozein ur-galera konpondu beharra dauka, nahiz eta galera hori onartzeko ezarrita dagoena baino txikiagoa izan.

Montaje propuesto para las pruebas de tuberías instaladas



Probak egiterakoan kontuan izan beharrekoak

a) Aire-hondakinezko poltsak uretan disolbatzen dira, baina proba egiterakoan berriro bere onera etor daitezke eta presio-kolpea eragin. Beraz hodia sareko punturik baxuenetik betetzea gomendatzen da era honetako mugekin: $D_n < 90$ hodietan, 0,1 litro segundoko emaria baino gutxiago; D_n 90etik 160 mm bitartekoetan, 0,5 litro segundoko; eta $D_n > 160$ mm-koetan, 2 litro segundoko. Baldintza horiek betez gero, ez da aire-poltsarik eratzen eta era berezian errazten dira puntu garietan, presio-probak egiterakoan, nahitaezkoak diren purgaketak.

Komenigarri da saio edo proba ofizialak egunaren barruko puntako tenperaturaren ondoren egitea eta ez gauetan. Probatan dagoen zatian, hein batean agerian dagoenean, giroko tenperatura asko igotzen da probaren hasieratik eta amaieraino; ondorioz hodiaren dilatazioa urarenaz bestelakoa izan daiteke eta presio jaitzaldi garrantzitsua eragin, batez ere polietilenoazko hodietan. Tenperaturaren gorabehera horrek probaren emaitzak nahas ditzake.

b) Proba 20 kg/cm^2 -ko presioan egingo da. Proba egiten hasteko instalazio guztia urez beteko da, eta horretarako amaierako iturri guztiak irekita egongo dira, harik eta ziur izan purgaketa guztia egin dela eta aire tanta batik ere ez dela gelditzen. Ondoren, purgarako ireki ditugun giltza guztiak itxiz joango gara, baita elikatze-iturria bera ere. Gero, ponpa erabiliko dugu, ordurako lotuta egongo dena, eta funtzionatzen mantenduko, harik eta probako presioa lortu arte. Behin eta presio hori lortzen dugunean, ponparen irekitze-giltza itxiko dugu. Eta azkenik, instalazio guztia ikuskatuko, galerarik ez dagoela ziurtatzeko.

c) Ondoren, presioa gutxituz joango gara, zerbitzuko presioa lortu arte: 6 kg/cm^2 -ko gutxienez, eta presio horri eutsi egingo diogu hamabost minututan. Instalazioa ontzat emango da denbora horretan manometroaren irakurketak gorabeherarik izan ez badu, hau da, konstante mantendu bada.

Proba honetan erabili beharreko manometroa irakurketa argikoa izango da, kg/cm^2 -en hamarrenak irakurtzeko modukoa.

d) Aurrean aipatu ditugun presio-unitateak galtzadaren mailan hartutakoak dira.

10. Harrera.

Aurreko araudia bete ondoren hartunearen instalazioa ontzat emango da. Eta une horretatik aurrera Uraren horniketa ezarri ahal izango da; beti ere Saneamenduko hartunea edo ordezeko instalazioren bat egin bada.

1. Xedea.

Arau honen xedea da eraikin, finka, industria edo zuzkidura instalazio bateko isurketak husteko kanpo instalazioetan exijitu behar diren baldintzak ezartzea; beti ere, erabilera arrunta izanik, bere funtzionamendu eta ustiaketarako nahikoa izan eta zerbitzua bermatuta egon dadin.

Saneamenduko hartuneak egiteko arau tekniko hauek **“HERNANIKO UDALERRIAN PROIEKTUAK IDATZI ETA LANAK HARTZEKO ORDENANTZA”**n ezarritakoaz osatuko dira.

2. Definizioa eta hartune bateko elementuak.

2.1. Definizioa.

Hartune bat izango da, abio-kutxetatik udal kolektoreetara abiatzen diren eta isurketa mota desberdinak (euri-urak, ur fekalak eta industrialak) biltzeko erabiltzen diren adarren multzoa.

Normalki, ur hartune bakoitzeko saneamenduko hartune bat eta bakar bat izango da.

Baldintzak zerbitzua jasotzen duen jabegoaren motaren eta ingurutan dagoen Estolderia Sarearen arabera finkatuko dira.

Saneamenduko hartuneen adarrak bereizgarriak izango dira, bai eta kolektore batetan bilduko badira ere.

2.2. Elementuak.

Saneamenduko hartune bateko elementu garrantzitsuenak honako hauek izango dira:

—Abio-kutxetak.

—Hodiak.

—Lotuneak.

2.2.1. Abio-kutxetak.

Beti jabetzaren mugaren ondoan, finkaren kanpoko aldean jarriko dira.

Hartunea hasten den puntua da eta erabiltzailearen jabetzan amaituko da; eta, beti, hartune bateko adar desberdin bakoitzaren hasiera izango dira. Bide batez,

kokapena eta abio-erregistroa bertan egon eta garbiketarako hartune gisa erabili ahal izango dira.

Bertan, kolektorera doan isurketaren itxierarako mekanismoak jarriko dira.

2.2.2. Hodiak.

Abio-kutxetak Estolderiako Ual Sareko putzuekin lotzen dituzten hodi zatika dira.

2.2.3. Lotuneak.

Hartuneko adarrak estolderiako putzuen bitartez estolderia sarearekin lotzen diren guneak dira.

2.2.4. Jabetzaren barneko kutxeta.

Jabetza pribatuan dagoelako hartunearen zati ez bada ere, derrigorrez instalatu beharko da jabetzaren barneko aldean, toki egoki batean, eta erregistro kutxeta bat jarri beharko da bertako ur fekal eta/edo industrialak jasotzeko eta sifoi motakoa izan beharko du.

3. Hartuneko Adar Motak.

—Euri-urak. Zenbait izan daitezke eta bakar bakarrik euri-ura jasotzeko izango dira.

—Fekalak. Eraikin bakoitzeko adar bat jarriko da eta, bakar bakarrik, izaera fekal edo asimilatuko urak hustuko ditu.

—Industrialak. Bakar bakarrik edo nagusiki izaera industrialeko urak husteko izango dira, nahiz eta zati batean, txikienean, izaera fekal edo asimilatutako isurkinekin nahas daitezkeen.

4. Hartuneen Neurriak.

4.1. Xedea.

Saneamenduko hartune bateko zati guztien neurriak zerbitzua eman zaion eraikinean, finkan, industrian edo bestelako eraikinetan sortzen diren isurkinen emari gehienezkoak (erabilera normalean) hustutzeko aukera eman beharko dute.

Garbiketa lanak errazteko xedez, ez dira ur fekaletako eta/edo industrialen hustuketarako 300 mm-tik beherako diametroak onartuko, ez eta 250 mm-tik beharakoak euri-uren isurketetarako.

4.2. Gutxieneko diametroa eta materialak.

Hartuneko hodiren materiala Gutxieneko diametro nominala

